


Lino Ayesta

GURE IZKUNTZAREN MUGATIK



AUSPOA

2235

GAS-128/75

GURE IZKUNTZAREN MUGATIK

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 67 12 82

Lino Ayesta

**GURE IZKUNTZAREN
MUGATIK**

Auspoa Liburutegia

Azalean: Zeberioiko Eliza.
Juan Ramon Elisbururen Marrazkia.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa -Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Cometip fotocomposición, S.L. - Pamplona
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)
ISBN: 84-7158-166-3
Depósito Legal: NA. 1532-1992.



Lino Ayesta

ITZAURREA

Liburu onen egile dan Lino Ayesta Goikoetxea, Manuel eta Prantziskaren semea, 1921-urteko urri-lelengo edo iraillaren 23-an jaio zan, Zeberioako Uriondo auzoan, Urretzagoikoa baserrian.

Bederatzi neba-arreba izan zirean, sei mutil eta iru neska, bera bederatzigarren eta azkena izanik.

Zazpi urte bete ondoren, Santa Krutz auzoko eskolara joaten asi zan, Linok esan deuskunez «eguerdiko zer jana morralean eroanda», eta bertan jarraitu eban amairu urte bete arte.

Andik amabostera, nekazari, artzain, ikazgin eta abar ibili zan.

Garai orretan biztu zan anai arteko gerrea, eta beste bost anaiak frentera joan bear. Lino, barriz, Ramon Praderaren fabrikan langille sartu.

Gerrara joan barik ozta-ozta libratu zan. Baiña 1942-an beraren kinta deitu eta Madrillera eroan eben soldadu, automobilismora. Berak orain diñon lez, «iru urte ta erdi an egin genduzan, senperrenak pasatuz, goseak ilik eta ogia amets gendula».

Andik etorrira, barriz be Ramon Praderaren fabrikara, eta an bi urtean jardun. Ondoren, Iñaki Atutxaren egur zerrara pasa, eta an lau urtean.

Ogei ta zortzi urtegaz, 1949-ko zemendiaren 24-ean, Arrankudiagako San Pedro baserriko Antonia Artzagaz

ezkondu. Urrengo urteko abuztuaren 25-ean, alaba bat jaio: Maria Luisa.

Andik jarraian, *Talleres de Miravalles* edo Fabrikara Zaarrera sartu, eta soldadore opizioa ikasi.

Garai artan etxe-bizitza gutxi egoan, eta billatzeak lanak emoten ebazan. Baiña egokiera agertu jakon gaur daukana artzeko. Baita berealaxe lantegiz aldatu, Matikoko Jose Lazaroren fabrikara, Bilbon.

Andik amabi urtera, Santa Maria Lezamara lanera. Baiña joan-etorriak egiteko erreztasunik ez egoalako, etxe bat bertan errentan artu bear izan eban aste-egunak an pasatzeko, asteburuak Basaurin egiñez.

Baiña lantegi ura itxi eta barriz lan billa asi bear, berrogei ta amabi urtegaz. Deuston arkitu eta irurogei ta iru urtegaz jubilatatu arte bertan jarraitu.

Lanari itxi eta bertso idazteari ekin. Langintza berri orretan zelan asi zan itaundurik, onelan erantzun deusku:

–Nire anairik zaarrena, Manu –Jaunak zeruan dagiala–, bertsolaria izan zan. Ari entzunik zaletu nintzan. Naiz eta bizitza zorrotza izan eta erdaldun artean bizi, zerbait geratu jatan. Leenik eziña, baiña orain, adindu ta gero, zor ori ordaindu gura izan deusot erriari. Egun on baten, nire loba Juan Manuel Etxebarria, euskerari indar emole azkarria doguna, nire etxera etorri zan, emaztea Arrankudiagakoa dan ezkerero ango izkeraren gain galdera batzuk egiten; eta, erakutsirik nik egindako bertsoak, esan eustan: «Osaba, jarraitu bertso egiten, eta gero sartuko ditugu danak liburu baten». Alan, jarraitu neutson bertso jarteari, liburu au bete arte.

Linoren liburu au irakurtean, euskalkien mugak apurtu egiten dirala esan daiteke. Naiz eta bertsoak beraren erriko euskeraz moldatzeko esan, eta zuzenketak egiterakoan artara alegindu, gipuzkera kutsuz be-

terik ikusten da Zeberioko euskera zaar eta eder au, beste lurralde askotako bertsolarien artean jazoten dan lez.

Uriondo auzoa mendi egal baten dago, Zeberiotik Ugao edo Miraballesera doan kamiñotik iru kilometro-ra, aldatz gora artuta, Euskalerrriaren mendebaldean, ia-ia gure izkuntzaren mugan, andik laster euskerea amaitu egiten da ta.

Euskeraren muga an dagoala gauza jakiña zan; ez, ordea, bertsolaritza be araiño irixten zanik. Onek zera esan gura dau: euskera eta bertsolaritzaren mugak bardintsuak izan dirala beti. Liburu au pozik argitaratzen dogu, beraz, bertsolaritzaren eremuak askok uste baiño zabalagoak dirala erakusten dau eta.

A. Z.

ZEBERIOKO ERRIARI

- 1/ Mundu guzian ez dala sortu
poz paregabeagorik,
amak semeai ematen dion
maitetasuna lakorik.
Ondo jaiota dagon semeak
badau ordaindu gogorik
ezin liteke aiztuta itxi
erri eta amatxorik.

- 2/ Aldaturikan bizi naz baiña
naz ni zeberiotarra,
zurekin aitzu gabe iltea
daukat gura izan bakarra.
Zure ipuin ta oiturak bere
bertsotan jarri biarra,
eskatzen deusot gure Jaunari
eman dagidan indarra.

- 3/ Mendiak dira zure zaindari
etsaiak aldetuteko,
alde batetik Mandoia eta
bestetik Untzetapiko,
ergoienetik Gorbeia eta
Ugao da elbarreneko,
oien erdian jaioa danak
ez zaitu zu aiztuteko.

- 4/ Zeureak dozuz amasei eleiz
Jaunaren etxe santuak,
orreetatik iru zirean
mezadun ipintakuak.
Eleiz-gizonak nonai zirean
zugandik jaiotakuak,
gaur kanpotikan etorten dira,
nun dirade bertakuak?
- 5/ Piñu baltzakaz bete zinean
orain berrogei bat urte,
basamortua biurtutea
nai ebela dot nik uste.
Aberatsari sakela bete,
txiroak lurra jo dute,
nekazari ta artzaiak bere
aldaketa ta dispute.
- 6/ Orain daukien buruko miña
zure ondasun bidetik,
aurrerapenik ez egon zugar
orien borondatetik.
Lenago goian ta orain bean
ezjakiñaren burutik,
zuri kalteak egin da gero
joango dira mundutik.
- 7/ Eunkadak ziran artzaiak eta
millaka auntz ta ardiak,
basa-bei eta mandoak bere
zirean talde andiak.
Paper batean ezin leitekez
idatzi zure barriak,
berbiztu ezkeron negar malkoak
ildako danen begiak.

- 8/ Beste gauza bat izango dogu
ur-jausi baten medio,
argindar barik geratuteak
lan gabezia dario.
Utsune asko ikusiagaz
damuak ez dau balio,
modu orretan geratzen jaku
tristetuz Zeberio.
- 9/ Argindar barik lantegirikan
ezin izanda eduki,
alboerritara aldegitteak
zelanbait eban obeki.
Len baginean bi milla eta
erdira gitxitu noski,
ondasunak non topau leikezan
gaurko jendeak badaki.
- 10/ Sustrai gabeko susmu gaiztoak
daukie jira bearra,
amar arroa eukan apaiza
bera errudun bakarra.
Andretara zan beresimortun(1)
aren oitura zatarra,
bere ondoren gero deitzeko
an jaioari muskarra.
- 11/ Aserre gabe bizi bear dogu,
maitatu gau eta egun,
izan ezkeru bertan jaio ta
sustraietatik euskaldun.

(1) beresimortu: basamortu.

Mai Manu eta *Mal-estudiante*(2)
bai makiña bat ezagun,
merezi dabe omenaldi bat
guztiok izanik lagun.

12/ Zeberioko erri maitea
bertsoak jarritakoa,
agurtutean barkazioa
Linok eskatutakoa.
Bertso onexek ez daukiela
berba bat egi bakoa,
ta uste barik esango nendun
ez bada orrelakoa.

(2) Mai Manu: Zeberioko garai bateko emakumezko bat.
Kantua be bada:

Ai ene, Mari Manu,
zeberiotarra,
zegan saldu zenduen
birigarro arra?

Amalau txakur t'erdi
geroko plazuan;
ai ene, Mari Manu,
karu ein zenduan.

Mal-estudiante, barriz, Zeberioko antxiñako ikasle bat, beti
ezkongai eta iñoz ezkondu ez zana.

URIONDOKO AUZOA

- 1/ Bizkaian Zeberion
uriondotarra,
ango oiturak daukat
bertsotu bearra.
Andra ezik besteak
euken truke zarra,
auzolana ta beste
mesede samarra.

- 2/ Lorpide andietan
lagun ditugunak,
esan leiteke orreik
dirala lagunak.
Pobreak garan partez
bear ezagunak,
besteakan aparte
batez be alargunak.

- 3/ Senar gabetutzea
orra desgrazia,
aurtxo txiker bategaz
bakar geratzia.
Baiña auzoa erreza
biotz-beratzia,
eta euren aldetik
serbitzu artzia.

- 4/ Seguridaderikan
ez eben izaten,
medikua pagatu
bear bazan baten.
Diru ordeztar to ta
galgarau ematen,
aldi aretan bizi
ziran nolabaiten.
- 5/ Iñozko denboratan
gaixoren bat bazan,
adorea emoten
auzoak etozan.
Naizta diruaz pobre
ta zorpean izan,
auzoaren partetik
anaiak gintzazan.
- 6/ Arto edo garien
ereitza bazuten
egun argiz eziña
gaubean landuten.
Idargi ta farolaz
al dana argituten,
neska-mutillak pozik
lurrak laiatuten.
- 7/ Urrengo egunean
ura goldatzeko,
auzoko Josen beiak
emon uztartzeko.
Besterik bear bazan
auzo serbitzeko,
prestu zirean danak
alkar laguntzeko.

- 8/ Neguak bearturik
bideak konpontzen;
baterenbat ez bazan
bertara etortzen,
bearrezkoa eukan
ardoaz ordaintzen,
eta alan ginean
zelanbait mozkortzen.
- 9/ Kortabarri basoa
zabalik nai bazan,
pago sartze ta jorran
danok an gintzazan.
Makallo ta zezina
nekaturikan jan,
erronka eta txantxa
ardoaren gisan.
- 10/ Ogi ta ardoagaz
talo ta opilla,
azukre ta kafea,
arraultze tortilla,
gaztai edo orio,
urdai ta pernila,
txarran odoloste
ta arrain parrilla.
- 11/ Erakutsi bearrez
alako dotriña,
kristau guztientzako
badogu jakiña.
Gure portaerakaz
orrela bagiña,
beste mundu batean
gaur biziko giña.

- 12/ Zoritxarrez alako
oiturarik gaur ez,
ezin ikusia ta
inbidia errez.
Dirudunak besteen
errukirik bapez,
baso guziak piñuz
betatu deuskuez.
- 13/ Artzain-nekazarien
ondagarrizkua,
urira bialtzeko
ak du arriskua.
Basamortu biurtuz
ardien lekua,
orrexek lotu deuskuz
anka ta eskua.
- 14/ Zenbat pertsona bizi
giñean bein baten?
Berreun baiño geiago,
guzur ez esaten.
Gaur bost-sei geratzeak
pena deust ematen,
otsoa etorko da
pastorea jaten.
- 15/ Jausi bear etxeak
dauden modu artan,
itogiñez beterik
gela guztietan.
Ez bada iñor ilten
jauskera oietan,
eskerrak emon bear
Jaunari benetan.

16/ Auzuna ori dabe
olantxe aurkeztu,
konpontzeko adirik
iñok bere eztu.
Ura dagon kasuan
bidea barritu,
illik dagon gaixoa
gurarik berbiztu.

17/ Zelango berbaldia
zuretzako, aurtxo,
ezkondu ta solteru,
agura ta atso.
Oitura edo ipuin
gaur egun ta atzo,
akabera onekin
amazazpi bertso.

ALARGUNA ETA MUTILZAR KOXOA

- 1/ Gure Euskalerrian,
auzotegi baten,
gauza ikusgarri bat
gertatu da aurten.
Entzuterik iñori
ez deutsat kenduten,
baiña zer pasatu dan
noia ni esaten.

- 2/ Ango mutilzar bati
gustatu jakona
izan da andretxo bat,
alargun dagona.
Ezkontzeko adirik
iñoz ez daukona,
kortejatzera barriz
prestu joakona.

- 3/ Gaba ta gaberdian
alargunan billa,
sasi-bazterren baten
kortejau dadilla.
Koxoa izanikan
orretan abilla,
galduak ditu berak
ainbat neskatilla.

- 4/ Burubide gaiztoak
gogoratutean,
ez eban lorik egin
bien bitartean.
Dirua opatuaz
eskua betean,
ezkonduko zirala
urrengo urtean.
- 5/ Aren itzak entzunda
piska bat erotu,
alargun orrek eutson
gorputza opatu.
Bereala koxoak
oso gustuz artu,
gero sasikume bat
jakien agertu.
- 6/ Gilborra goratuten
adi egoteko,
gero alargun orrek
berari esateko
aurdun dagoela ta
arin ezkontzeko,
alan barrikeriak
gutziz kenduteko.
- 7/ Albiste ori eutson
mutillari ekarri,
oso geratuteko
estu eta larri.
Beraren arpegia
jakon gorri jarri,
ez egola gustura
eutsien igarri.

- 8/ Orrela pasatu zan
beste illabete,
barrero alarguna
bera joan arte.
Koxo arek ez eban
ezkontzerik uste,
alargunak diñotso:
«Abiatu zaite!».
- 9/ Berba orreik entzun da
laister anka egin,
galtzak ezin arturik
ak beldurrarekin
Erbestera joan da
diru guziekin,
iñok il ez dagian
puñalen batekin.
- 10/ Sarritan ebalako
egiña pekatu,
mutilzar orri jakon
orrela gertatu.
Ordurarteko gaitzak
guraz ezkutatu,
guzien begieri
eutsen eskapatu.
- 11/ Baita alargun orrek
ainbat pentsamendu,
pauso txarrak dautsoe
fama dana kendu.
Egindako okerrak
eziñik zuzendu,
bera ta bere aurra
bearko mantendu.

12/ Orra zelan direan
kontu oneik gertatu,
dauken buru ariña
alferrez penatu.
Barrero olangorik
ez daiten pasatu,
bertso barriak gogoz
dodaz nik kantatu.

OROIPENAK

- 1/ Neuri ta nire etxeoari
bertsoak jarteko naia,
gure Jainkoa, argi eidazu
nire gogo ta doaia.
Irurogei ta bost bat urtegaz
oraintxe bada garaia,
gure artean pasatu diran
gauzai emonez epaia.

- 2/ Nire deitura Ayesta daukat
eta Lino dot izena,
Zeberiokoa jaiotzez eta
Basaurin bizi naizena.
Memori edo oroipen oni
emon nai bide zuzena,
nire bertsoak kantatutean
osatuz buruko sena.

- 3/ Aita ta ama on utsak ziran,
neba-arrebak talde bat,
nire fameli baiño oberik
etzan errian beste bat.
Bear izanak izanagaitik
ez gendun gauza oker bat,
prestu giñean bear ezker
emoteko laguntze bat.

- 4/ Amaika lagun jarten giñean
maitxo batean gustura,
gure zilbota betatuteak
eukan naikoa ardura.
Orduan gendun maitetasuna
sarritan jatort burura,
gerra gaizto bat etorritean
zabaldu giñan mundura.
- 5/ Alde batetik gorroto eta
bestetik zauri sakonak,
gaiztakeriak ugari eta
gutxi zirean gauz onak.
Andre ta ume desprezuz bete
ta espetxean gizonak,
argiro esan leikez kontuok
kontzientzirikan daukonak.
- 6/ Goian zerua ta bean lurra
beste ondasun gaberik,
osasun ona izan ezkerro
Jaunari emon eskerrik.
Aita ta amak borondateaz
zabaldu arrik(1) sakelik,
ez eukien ta eskatutea
izaten gendun alperrik.
- 7/ Soldaduska bat luze-luzea
gerra osteak beartu,
ia lau urte alperrekoak
ala nituan betatu.
Oien urrengo ezkontutea
jatanez buruan sartu,
nire andratzat Anttoni Artza
gustura nik neban artu.

(1) Zabaldu arrik: zabaldu arren.

- 8/ Ezkon barritan borondatea
maite ezkeru alkarri,
eskabideak betatuteko
bear aurtxo bat ekarri.
Orien bidez alabatxo bat
jakunez guri etorri,
Maria Luisa bere izena
neskeari geuntsan jarri.
- 9/ Denbora gutxin ezaguera
artutako neskatilla,
irakasleak esan eutsien
ikasle prestu dedilla.
Jakiñik eurak zintzoa zala,
baita ikasle abilla,
Euskalerriko eskola baten
irakasten dau kartilla.
- 10/ Orrela gauzak egin ezkeru
prestu zan ezkondueteko,
Jose Maria zan ezkongai
bere senar artuteko.
Gauza guztiak zorionean
bear dan lez ipinteko,
aurtxo txikiak ekarri ebazan
arrazak segiduteko.
- 11/ Lelengoari mutilla bada
Joseba Ander deitzeko,
alde batetik aitite naiz ta
bestalde aitaponteko.
Presturik nago gure Jaunari
biotzetik eskatzeko,
primatu eta bertsolaritzat
nire ondoren uzteko.

- 12/ Bigarrena be dogu mutilla,
maite dot bene-benetan,
argi ta pozez beteagorik
ez da inor erri onetan.
Izena berak Aratz dau eta
lo gitxi jako gustetan,
gabak osoan pasatzen ditu
jolastu edo kantetan.
- 13/ Orreik aitite deitzean niri
nago piska bat lotuta,
baita ganera urte askotxo
nire bizkarrak artuta.
Ori esanak erakusten dau
nagola oso sortuta,(2)
alan da guztiz bizi nai neuke
biotz-gogoz gaztetuta.
- 14/ Nire buruak esaten eustan:
«Bertsotarako banintza,
orren barruan sartuko neuke
nire munduko bizitza!».
Txikitatikan izan neuan nik
gogoko bertsolaritza,
kantatutean taupadaz daukat,
lagun maiteak, biotza.
- 15/ Uste dot orain agurtutean
askotxo kanta dodala,
ta gazteari leku uztea
bizitzako zorra dala.
Erabagia artuta daukat
gizon arteza naizela,
idatziagaz guztiontzako
bete bear dot papela.

(2) Sortuta: baldartuta.

UPOKO BASOELIZA

- 1/ Upoko basoelizan
dogun santuari,
bertso barri batzuek
biotzez kantari.
Bera dogu buruko
miñaren zaindari,
eta San Sejismundo
deritzo berari.

- 2/ Elizaz biak dabe
an aginpidea:
bat dala Zaratamo,
Zeberio bestea.
Bien lurrean egin
eben ermitea,
bakotxak urte baten
artuz ardurea.

- 3/ Garagarrilla eben
bere biziz artu,
irugarren domekaz
egiteko ospatu.
Urte askotan dogu
ederto pasatu,
bestetan alan bere
ez kezka faltatu.

- 4/ Mendira igaroten
aldapa garratza,
janariaz beterik
astoa gorantza.
Noizean bein jateko
al bazan lebatza,
albo-erriak doaz
danak Uporantza.
- 5/ Bi edo iru taberna
an iminten zian,
beroak emoneko
egarri kentzian.
Gurasoak aurretik,
aurtxoak atzian,
deboziñoz beterik
an parte artzian.
- 6/ Oraindik ikusten dot
nire barrenian,
milla bedratzireun da
ogetamaseian,
gitxienez eun gizon
borrokan zirian,
batak imini guran
bestea azpian.
- 7/ Gizon bat agertu zan
odol-gorriturik,
danok geratu giñan
oso arriturik.
Basa-zaintzale bat an
egon armaturik,
bakeak ak ein tiroz
danok bildurturik.

- 8/ Piska bat geroago
giñean lasaitu,
alkate jaunak berba
gaur dot gogoratu:
arek danori esan
deuskula barkatu,
zigorkada batzuek
naizta berak artu.
- 9/ Eztabaida ugari
sarri egolako,
agintariak prestu
jaia kentzerako.
Baiña asko ziranez
joaten arako,
agintariak ezin
kendu betirako.
- 10/ Zernai egin gurarik
dirudunen partez,
eleiz-gizonak bere
otzitu al dabez.
Antzik gabe itxita
orreixen bitartez,
ardi-korotzez bete
danontzako kaltez.
- 11/ Lurreko ondasunak
maitatu lenbizi,
ta zintzotasunari
alegin igesi.
Jainkoagaz aitzuta
nai badogu bizi,
orrela zerurikan
ezin irabazi.

12/ Asiera bezela
nik bukaerari,
egia esan baño
etxat gusta neri.
Jaramon ein ezkeru
nire izenari:
Uriondoko Lino
bertsoak kantari.

TXAKUR TA KATUAREN BERTSOAK

- 1/ Animaliak dauka
au paradisua:
baserri eta bere
gauzen ingurua.
Alkar ikusi ezin
txakur ta katua,
euren artean dabe
gerra amurrutua.

- 2/ Baserria zaintzeko
berebizikuak,
soldata barik dira
txakur ta katuak.
Batak lapurrak eta
besteak saguak,
orrelaxe aziendak
dirade zainduak.

- 3/ Bien artean dabez
bengantza bardiñak,
inbidi eta alkar
ikusi eziñak.
Ezer bada jateko
kentzen alegiñak,
miau ta erakutsi
maipean agiñak.

- 4/ Tripa-zorriagaitik
sarri borrokatu,
baiña ezin deustie
alkarri parkatu.
Bein batean kume bat
txakurrak ozkatu,
katuak atzaparka
begiak puskatu.
- 5/ Txakurrak indar geio,
katua da trebe,
itzulipurdiakaz
zirkua baño obe.
Oilla lokak sasitzan
bere abia be,
arrautzak apurtuaz
ikaratu dabe.
- 6/ Oilloa non egoan
etxean ez jakin,
janik izango zala
azeriarekin.
Alde batez pozturik
agertzearekin,
suerteza izan dabe
borroka oiekin.
- 7/ Txakurra eroan eban
katuak basora,
ta etzan atrebidu
itzultzen atzera.
Bost egun pasatuta
joan billatzera,
oraindikan bildurraz
jatorku etxera.

- 8/ Etxera etorri zan
bildurrez beterik,
ta ez eban geiago
balientekeririk.
Katua zan nagusi
egun orretarik,
ez dot iñoz ikusi
alango katurik.
- 9/ Imini nai eutsien
katuai soldata,
eta berak erantzun
ez dauala falta.
Etxeko andrearen
utsegiñak janta,
olan atarako dau
jornala galanta.
- 10/ Urdai ta ondorengo
aren gustukuak,
utsituten ebazan
iñoz lapikuak,
eskasia izanez
gero etxeukuak,
lapurtzen ebalako
zati bat katuak.
- 11/ Noz edo noz arraiñik
bazan bazkaltzeko,
besterik etzan bear
burua galtzeko.
Andrea jiratzean
erraria artzeko,
katuak ostuten dau
kamaran jateko.

- 12/ Murmuaz txakur zarra,
ta ekarri bestea,
alan gelditu jaku
benetan tristea.
Katua bere zarra,
txakurra gaztea,
arbolara jasoaz
nai dau salbatzea.
- 13/ Mareaturik jausi
arbola zarretik,
azpian itxaron ta
eldu bizkarretik.
Agiñak sartu deutsoz
bizkar-ezurretik,
ez Jesus eta amen
joan da lurretik.
- 14/ Amaitu da katua,
indartsu, maltzurra,
aurretik eroan dau
murmua txakurra.
Barria utzi dabe
ta gazte samarra,
katu barria falta
emoteko parra.
- 15/ Barragarriak ziran
txakur ta katuak,
jan orde z lan eginda
bizitutakuak.
Soldata kontu danak
ziran parkatuak,
bestalde janariak
lapurtutakuak.

BAKEAREN ARBOLA

- 1/ Iztegi baten itz asko dagoz
baiña astunak sartuta,
asiera nik emon nai neuke
oiñak lur-ganeratuta.
Ametz gaitzagaz lo egin barik
Euskadik seme gaitu-ta,
asieratik bakea oiñarri
biotz-biotzez artuta.
- 2/ Iñoiz bakerik nai izan bada
beraz gaur egun daigula,
danok bat egin ta sar dagigun
guk bakearen arbola.
Borrokarikan lortu ez daiten
gure lur ontan sekula,
ez geunke barriz ixurtu gura
gure errian odola.
- 3/ Baldin bakea nai bada emen
danok gagoz beartuta,
berekoikeri danak itxi ta
lepoa arrimatuta.
Guzurra eta berba utsakaz
oso gaude aspertuta,
geiago ezin geinke itxaron
il pillo bat daukagu ta.

- 4/ Ez da neronen eragozpena
baiña bai lagun nabarra,
pake lortzeko kendu bear jako
ama askori negarra.
Kartzela eta torturak dabe
guregan entzute txarra,
entzun zazue zelan daukagun
ortaz konpondu bearra.
- 5/ Baiketak dauzkan ondorio ta
beste arremn ta auziak,
fameli edo etxe koentzat
dirade oso luziak.
Orregaitikan artu nai dodaz
ortarako lau aiziak,
zabaldutean allega daitez
bigunduz biotz guziak.
- 6/ Amaitutean eskatzen deutset
eskritura bat formala,
gobernu zentral eta gureak
siñatuz emon abala.
Danon onerantz bake eder bat
lortu bearra dagola,
urregorrizko letra orreikaz:
«Ni naz bakean arbola».

PELLO ETA PILAR

Bertso oneitan dirua eta amodioaren burrukak eta ezdabaidak kontatzen dira. Izan be, olango kasuak sarri askotan jazo ei dira Euskal-Errian.

1/ Bizkaiko Pello eta
Arabako Pilar
biak gertatu jakuz
ezkontzeko goiztar.
Prisaz ibili ziran
ezagutzen alkar,
ezereza izanda
diru piskat bear.

2/ Ziur pentsatu eben
au komeni zala:
Amerikara Pellok
aldegin dezala;
diruaren premiña
andia eukala,
ezkondu nai baeban
besteak bezala.

- 3/ Ala erabagi eben
biak alkarregaz,
lenbailen etorteko
ura diruagaz.
Pillarrek ausentzia
zintzotasunagaz,
etorrerea ospatuz
ezkonduteagaz.
- 4/ Denbora pasa eta
Pello diru gabe,
alegin egin arren
len bezela pobre.
Ama luze eretxita
bai asarratu be,
besteagaz ezkondu
izango zala obe.
- 5/ Alan izendatu dau
mutil aberatsa,
Pillarri beartuaz
beragaz ezkontza.
Ta imini deutsonez
istillu garratza,
puskatu bear dabe
neskaren biotza.
- 6/ Pilarrek mutillari:
«Ken zaitez, zorritzto!
Ez dot nai aditu nik
amaren itz gaizto.
Lagun artu bear dot
gurutzeko Kristo».
Baiña dirua eta
deabrua listo.

- 7/ Eztabaidan podasuz(1)
etxetik aldatu,
arrastoa segituz
amak dau billatu.
Jende aurrean Pilar
eben zigortatu,
batez be egin daitean
betiko lotsatu.
- 8/ «Olan ni ikusita
babesikan gabe,
gutziz derrigorrean
ezkonduten nabe.
Arkitu nazelako
bakar ta aula be,
azkenez euren naia
lortu egin dabe.
- 9/ Nai gabeko ezkontza
gertatu jakula,
diruaren partetik
iminiz klausula.
Munduak be badaki
txarto egin dogula,
Pello etorten bada
barkatu deigula».
- 10/ Ezkondu ziran eta
pasatuz bost urte,
oraindikan aurtxorik
bat bere ez dute.
Pilar beti egoan
argal eta triste,
esanaz bakarrean:
«Pello, zaitut maite».

(1) Podasuz: poderez, indarrez.

- 11/ Andik egun gitxira
ura etorri zan,
Pilar ezkondu dala
gizon batek esan.
Biotza jarri jako
alango tristezan
berberdi esateko
ez da kapaz izan.
- 12/ Urrengo egunean
ikusterakuan,
besarkada ta mosuz
jan bearrez zuan.
Bestea lagatu ta
Pellogana juan:
«Zu bakarrikan, Pello,
maite dot munduan»
- 13/ Aberatsak iñoan:
«Alan txarto gagoz,
senarra naz ta nigaz
bearturik zagoz.
Eta nigaz etxera
arin ez bazatoz,
espetxean sartuta
urten ez jakin noz».
- 14/ «Legezko ez da baiña
bada amodioz,
alkar maite izatea
arima ta biotz.
Aurtxo bat gura neuke
Pelloren medioz,
mantenduko geunkela
lanaren balioz».

- 15/ Eskabidea entzun
dautsoe Pilarri:
andik urtera badau
aur bat zoragarri.
Artaz kendu eutsoen
ak eukan egarri,
errazoia non dagon
bakotxak igarri.
- 16/ Alabatxoa zan ta
kariñoz betean,
amar urtegaz sartu
komentu batean,
Pilarren eskaria
kunplitu daitean.
«Iltzeko konforme naz
ni onenbestean».
- 17/ Illabete barruan
aitamak il zian,
batek bestea eroan
alkarren atzian.
Aberatsa gelditu
itxuen antzian,
andre gabe ta triste
diruz jokatzian.
- 18/ Orra nolako oar,
gaztedi maitea,
ezkontza ez dogula
zoro ibiltea.
Komeni da danontzat
begiratutea,
nai bada zorion da
pakez bizitea.

SAN ANTONIO URKIOLAKOA

1/ Ez doguz nai zarata,
kantu ta txilio,
baizik maite biotzez
gaur San Antonio.
Makiña bat liburu
ta paper folio
idatziak dirade
emonez balio.

2/ Iñoz deboziñorik
bazan gure artean,
San Antoniok dauka
Urkiola partean.
Baten utsegin gabe
berrogei urtean,
egun batean joan da
etorri bestean.

3/ Janariak arturik
makillan ertzean,
San Antonio dogun
bezpera goizean,
Arratia guztia
Dima zeartzean,
Urkiolara doia
gaba pasatzean.

- 4/ Ostatuak beterik
egoten baizian,
asko lotzen giñean
lekurik ezian.
Tellape baten sartu
diru eskasian,
sarri lo egin barik
ia gau guzian.
- 5/ Ez dira bat eta bi
millakadak baizik,
sakrifikatzen dira
santu origaitik.
Bai ezkongai eta bai
abereakaitik
abogadua dogu
alde bietatik.
- 6/ Nolako maitasuna
santu origaitik,
dana laga ta etorri
urrutietatik.
Ara-onakoa oiñez
zati bat ortutsik,
oiñak zauritu arren
oraindikan pozik.
- 7/ Iru erri aldeak
dogu parte artzen:
Bizkai Gipuzkoakin,
Arabak amaitzen.
Beste santu guztiak
doguz guk maitatzen,
baiña San Antonio
altuena jartzen.

- 8/ Ikusirik daukat nik
nire begiakin,
ezdabaida lortzean
promes egitekin.
Geldi ezin aldapan
autoa arriskukin,
barriz bajatutzian
ortuts promes egin.
- 9/ Orazio egiñez
santuari sarri,
gero jira artu ta
errirantza jarri.
Etxekoai eskintza
bear zan ekarri,
Mendaroko erroskillak
danen zoragarri.
- 10/ Orreik dira antxiñeko
oitura ederrak,
gure ibillera oiek
etziran txikerrak.
Jarraitzailleak emen
gura ditu zarrak,
orain bere guziak
ez dirade txarrak.
- 11/ Iñoz ara joatea
suertatzen bajatzu,
Urkiolako eleiza
beterik daukazu.
Zintzotasun aundian
sartzen bazara zu,
San Antonio jaunak
eskertuko dautzu.

12/ Oraindik badauzkagu
gauza on batzuek,
ez doguz danak aitzu
aitan kontsejuek.
Jauna lagun dogula
ta beste santuek,
jarraitzaille garala
dokie munduek.

ARDOZALEAREN BERTSOAK

- 1/ Izendatu nai neuke
nik ardozale bat,
berari parra emoten
ez kapaz beste bat.
Bein baten atzerrian
forma zan gerra bat,
senperrak pasatuaz
lortu soldata bat.

- 2/ Andikan itzuli zan
diruaz beterik,
ardo edatea baño
ez pentsa besterik.
Bolatoki, taberna
ez dau nai ixterik,
orren burua gaixo
ardoa gaberik.

- 3/ Bein sei eun erlekoak
baten jokatuak,
urre gorrizko txanpon
garai artakoak,
gerra gaizto oietan
logratutakoak,
eta momentu baten
ak galdutakoak.

4/ Tabernan sartu eta
urteten ez jakin,
beste lagun batzuek
artuz berarekin.
Andrak aserratuta
gizon ta semekin,
atera dituzte andik
makilla batekin.

5/ «Madarikatu eta
au txorimalua!
Zure etsaiak dira
patar ta ardua.
Amaitzen dozunean
daukazun dirua,
eskean zoiaz artuz
zaku ta palua».

6/ Ori gezurra danik
ez zazue uste,
gertatu zala orain
larogei bat urte.
Orozkoko Ibarra
ori badakite,
testifikatuko dau
iñok, nai badute.

7/ Alan pasatu dabe
gaztaro guzia,
galdu egiñez beren
lagun-taldezia.
Antxe erakutsi dau
buru eskasia,
bereala arturik
diru gabezia.

- 8/ Ugaritasun orreik
amaiturik laster,
jateko ta jazteko
bere ez dau ezer.
Diruaren erruaz
biurtu da alper,
goseak ilko ez badau
billatu edozer.
- 9/ Egurgille batzuek
erruki artzean,
erremintak zorroztu
jan orde zartzean.
Barriz buruaustek
negua sartzean,
urira bajatzen zan
limosna batzean.
- 10/ Denboraldi bat ala,
beste bat umezain,
baldin gosea kendu
nai badau nozik bein.
Aurtxoak negar egin
ta bera buruz gain,
a baiño formalago
izango da edozein.
- 11/ Orduan gogoratu
andra orren itzak:
beartuko ebela
eskale ekintzak.
Norbaiten esana be
artu dau beretzat,
«Negarra ta malkoa
burugabeentzat».

- 12/ «Askoren esanari
kasorik ez egin,
naikoa pasau neban
pauso txar oiekin.
Diruak itxutu ta
gastatzen ez jakin,
alperrik galdu nintzan
nire ardoakin».

IKAZGIN ENAMORATUA

- 1/ Ikazgiñak pasatuak
nai neukez bertsoratuak,
gorabera ta arremán orreik
ari gertatuak.
Ez dira danak santuak
mundo ontako tratuak,
izerdi asko bota ondoren
ernatutakuak.

- 2/ Gau eta egun basuan,
ain eskintza nekosuan,
lan egin barik ez dabe emoten
dirurik auzuan;
batez be aren kasuan,
ezkondu nai izan zuan;
andregairikan ezin billatu
desespero osuan.

- 3/ Orrela basoraturik,
apur bat aserraturik,
diru gabeko burlea zala
ziur pentsaturik;
izan ezkeró modurik
ez eban beste konturik:
bere lan dana lenbailen jarri
diru biurturik.

- 4/ Urak kenduta agorra,
lo egiteko liorra,
dirua eta zer galduak be
zaintzeko txakurra.
Baita saguai bildurra,
jaio dalako lapurra;
jakia laga arbola baten
urrunduz musturra.
- 5/ Moldatu bear egurra,
enbor, abar ta mukurra,
lorra egin da oiek pillatuz
armatu txondorra.
Ura lantegi gogorra
bajatutzeko gilborra,
aizkora eta trontzearekin
ziri eta borra.
- 6/ Lekua bada aldaztsu,
zelaitu bear indartsu,
goitik atxurtu, bean esia,
lotu nai badozu.
Iduri faltako jatzu,
zoiez tapatu beazu,
estutu eta txondorra zutik
zaintzeko zaude zu.
- 7/ Suak erditik zulatu,
betegarriaz beartu,
ikatza egosi arteko lanak
dituzu zuk artu.
Egunero ak eskatu,
txondor zuloa betatu,
bajatutzean jakingo dozu
noiz daben amaitu.

- 8/ Orra ikatza egosita,
dirua irabazita,
basoan senper pasa ondoren
erria jatsita.
Amodioaz josita,
ez dau burutik itxita,
nola neskatxa polit bat daukan
begiz ikusita.
- 9/ Sasoi onena artzeko,
udan ikatz egosteko,
otzik pasatu gabe basotik
urriñeratzeko.
Negua obe lortzeko,
bada kapaz ekartzeko
gustu guztiko andra polit bat,
bera berotzeko.
- 10/ Amak au diño, jakiña:
«Gaixo osatu eziña;
neskeak goxo begiratuaz
osatuko ziña.
Egin dozun alegiña
alferrik izan da baiña,
ezin lortzean obe zenduan
lo egon baziña».
- 11/ «Despreziatu nauela
argal, motza ta zimela;
naizta geratu ezkondu gabe
niretzat ez dela.
Eskola barik nagoela,
beti pobrea bezela,
ardorik barik jaten dodanez
zekena nazela.

- 12/ Ezin billatuz andrerik,
ibillia naz alferrik,
amodioa aundia baiña
erantzun gaberik.
Amak ez dauka besterik,
ez dit emoten bakerik,
dirua ondo egin dot baiña
ez daukat maiterik».

LELENGO KOMUNIOA

- 1/ Jaungoikoari deusogun zorra
gura badogu pagatu,
bere legeko agindu danak
zeatz beoguz betatu.
Antxiñetiko Testamentua
Jesukristok barriztatu,
bata zein beste ez kunplitzean
egiten dogu pekatu.

- 2/ Kristauarentzat garrantzitsua
beti bada bateoa,
gitxiagoa ez da izango
lelengo komunioa.
Aita ta amak egun oietan
badute ilusioa,
baiña aititak ez dau izango
bapere txikiagoa.

- 3/ Lelengo illoba eta ganera
baita besoetakoa,
Ander maitea, zu zara aitita
pozagaz betetakoa.
Errosario liburuagaz
zuririk jantzitakoa,
aingeru zaran alde orretatik
zuregan dozu Jainkoa.

- 4/ Aingeru batek zerutik ona
zugana zearkatua,
belauniko dan Ander maitea
garbituz bedeinkatua.
Kristoren gorputz ogi biurtuz
zure barrura sartua,
izan zaitezen beti-betiko
besarte artan artua.
- 5/ Zazpi dirade sakramentuak
kristau onaren sariak,
gure Eleiza Ama Deunari
Jesukristok ekarriak.
Jaiotzetikan eriotzera
onartzen geure abegiak,
beartzen gaitu, kristau geranez,
Jaungoikoaren legiak.
- 6/ Zazpietatik bigarrenkoa
gaur guk ospatzen doguna,
lendabizikoz bere gorputza
zuregan artzen dozuna.
Ezaguera dozun ezkeroko
egunik zoriontsuna,
Jainko maiteak eman deigula
artarako osasuna.

JESUKRISTOREN GARIZUMA

- 1/ Gauza garrantzizkoak
bertsora narama,
esplika al banegi
gaurkoz garizuma.
Borreroak iltera
Jesus or darama,
geuk ikusi barikan
bein jazo zan drama.

- 2/ Gu danok erosi ta
erakustearren,
Aitagandik etorri
lurreraño zuzen.
Gurutzean iltea
eskojitu zuen,
Kaliz Sagratugandik
pasatu ondoren.

- 3/ Berrogei egunean
barau egitera,
garizumea zer dan
erakutsitera;
gure pekatuakaz
kargua artutera,
Jainkoaren Semea
gurutzen iltera.

- 4/ Orrelan eldu jakon
au Aste Santua,
ostegun arratsean
zan preso artua.
Jetsemani parajen
egoan ortua,
orazio egiten
ak eskojitua.
- 5/ Kaifastarrak samindu
jaken biotzetik,
Erramu eguneko
prozesiogaitik.
Jesusi jente askok
segitu atzetik,
komeni zan kentzea
begien aurretik.
- 6/ Judas traidore orrek
fariseoakin
diru batzuekgaitik
tratu ori egin.
Jesus zein dan salatu
mosu faltsoakin,
Pilatosi bidali
gudari aiekin.
- 7/ Deklarazio artu
epai emoteko,
egin ez dan bekatu
ori barkatzeko.
Auxe ez zan kapaza
ebazpidetzeko,
eskuak garbituaz
erriari uzteko.

- 8/ Erriak gurutzera
bialdu Jainkoa,
senperrenak sufritutuz
igarotakoa.
Eziñagaz jausi ta
zigortutakoa,
zauriturik estali
odolez lepoa.
- 9/ Untzez josi mailluaz
ta orien otsak
urrutuko leiozke
borreron biotzak.
Zer adorea eukan
begira bakotxak,
josirik esateko
andik zazpi itzak.
- 10/ Jaunak eskojitua
ama izateko,
Espirituan bidez
Jesus sortuteko.
Jainkotasuna aparte
bere sabeleko,
Seme ederra ala
gugaitik ilteko.
- 11/ Kaifastarren oiturak
Pazkoaganantza,
orrelaxe il dabe
Jaunaren bildotsa.
Ori gertatzen jaku
andikan onantza:
egunero ilteko
asmoaz gabilta.

- 12/ Jakin dogun ezkerro
berbiztua dala,
profezia guziak
kunplitu zirala,
gu salbatutzearren
ori egin ebala,
barriro alangorik
jazo ez deitala.
- 13/ Iru-lau emakume
Andra Mariakin,
gizonak ez daukaten
adorearekin,
bultzakadaz zebiltzan
gudari aiekin,
naiz ta zigortatuak
ziran makillakin.
- 14/ Iñok lortu ez dauan
katearen mailla,
Amak Semeagaitik
ez dau izan zailla.
Maria guziontzat
da indar emaila,
alako asko Jaunak
emon deiguzala.
- 15/ Amabost bertso dira
egiaren gisan,
Jainkoaren aurrean
kantatu daitezana.
Errore eta utsak
izan bagiñuzan,
apalduarik eskatu
barkatu daiguzan.

GIZONEN GARIZUMA

- 1/ Errespeto andian
dator garizuma,
piska bat garbitzeko
gorputz ta arima.
Janari kontuetan
arduratu ama,
abade ta praileak
eleizako drama.

- 2/ Aragi ixte eta
barau egitea
ez eban onartu ta
alegrau jentea.
Sarri arrain gabe ta
goseaz betea,
senperra pasatuaz
garbi egotea.

- 3/ Emen baditugula
guk induljentziak,
bulda baten bitartez
Erromak utziak.
Astean egun baten
sagrifikatziak,
bariku gaberikan
libratu bestiak.

4/ Indibaba zuriak
oliozpiñetan,
ezti piskat ganean,
bariku oietan.
Gazteak dantza barik
zazpi asteetan,
barriro biztu arte
Jesus Pazkoetan.

5/ Aste Santua eben
garrantzi andikoa,
ekarriaz misio
albo-errikoa.
Sermoilari berezi
izendatukoa,
abade ta agintari
oien gustukoa.

6/ Bearturik gengozan
sermoi entzuteko,
gero prozesioan
danok kantatzeko,
alabantza emonez
Jesus goraltzeko,
ta bere iltzailleak
karguan artzeko.

7/ Misio amaieran
konfesatutzeko,
eta txartel bat emon
kontrolatutzeko.
Gitxi geratzen ziran
autortu gabeko,
aiek zirean berba-
bide izateko.

- 8/ Konfesiñoak ziran
geienak urtero
Ostegun Santu goiz ta
Pazkoa goizero.
Jauna artu ondoren
tabernara gero,
batez bere gizonak
pattarragaz bero.
- 9/ Bariku Santu egunez
funtzio oietan,
elizak ezin artu
jende-moltsoetan.
Bazan deboziñoa
aste santuetan,
Jaunagana biurtuz
guziok benetan.
- 10/ Domekararte apal
Jainkoaren lutuz,
formal egoten giñan
orren errespetuz.
Kanpai errepiketa
eleizako kantuz
alegratu guziok
Jainkoa berbiztuz.
- 11/ Pozez bete-betean
zelebra bearra:
aume edo axuri,
ardo ta pattarra.
Edarien indarrak
emonik mozkorra,
barriz be dana aitzu ta
len bezin gogorra.

12/ Geure santutasunak,
esan nai dot garbi,
dauko auntzetan beste
bildots edo ardi.
Maitetasun ohea
opatu Jesusi,
barriz nai ez badogu
gurutzean josi.

DROGA ETA SIDA

- 1/ Osa ezin dan gaitza
pertsoneen zauri da,
ikaratzen mundua
gaur egun asi da.
Idrojeno-bonba bat
bezela jausi da
lenagandik aparte
droga eta sida.

- 2/ Belar pozoiz betea
lenbizi esana,
gaztedi maiteari
galduz osasuna,
droga orren bitartez
desagertzen dana;
mafia guzientzat
negozio ona.

- 3/ Ori manejatutzen
maliziarekin,
sustraiak nun daukazan
nai neuke nik jakin.
Disimulatzen dira
gamelu oiekin,
errudunak tapatuz
maskara batekin.

- 4/ Pertsonen osasunaz
orreik negozio,
ona ta zintzoari
emon desprezio.
Dirudun izatera
artu ofizio,
origaitik bakarrik
dabe ilusio.
- 5/ Kontseju emole naz
neure alegiñez,
iñor ez deiten sartu
orra, au jakiñez.
Sarrera izango da
oso atsegiñez,
amaieran aldrebes
dominau eziñez.
- 6/ Norberak billatuko
gaixoa da droga,
atsegiñez betea
bein badabe proga.
Arrera onekoa
ta izatez plaga,
arrapatzen dabenak
ezin dabe laga.
- 7/ Zistadan artu autsa
gustura jartzeko,
beste gauza guziak
aiztuta uzteko.
Baiña dirua bear
ori billatzeko,
ostuaz gero danak
kanpo ta etxeko.

- 8/ Arrapatu ezkerro
presondegiratu,
andik urten dagian
gurasoai geitu(1).
Lenaz diran ganetik
barriz disgustatu,
bardintzeko dirua
dautsoe eskatu.
- 9/ Sarritan familiak
ez dauko naikoa,
auzora ate jotzen
beartutakoa.
Ori balitz bakarrik
egun batekoa!...
Barriz jausteko bere
dauko arriskoa.
- 10/ Danak lagun eginda
mutil ta neskatxak,
batera biziteko
dirade kapazak.
Etxetik aldegin
oiek dira trazak,
amaren disgustuak
ez dira eskasak.
- 11/ Oneik dira drogaren
arazo gaziak,
alperturik geratuz
orrela guziak.
Erremedio barik
lendikan jausiak,
gaixo onen bitartez
gorputzak autsiak.

(1) geitu: deitu.

- 12/ Errukiturik, Jauna,
begira mesedez,
laguntza gabe gagoz
osatu eziñez.
Egiña da pekatu
andre ta gizonen,
barkaziño eskatu
zeureak geranez.
- 13/ Bigarren parterako
lelengoko mailla,
bestea baizen gaizto,
sida oso zaila.
Naiz tximiño naiz andre
errudun dedilla,
ez gagoz ziur nor dan
alango jentilla.
- 14/ Izena sida eta
kriminal dogula,
Afrikan diru truke
salduta odola.
Naita batzuek esan
orrela ez dala,
orretzek ilgo gaitu
euliak bezala.
- 15/ Irugarren go batzuk
daben agerrera:
drogazalen erruaz
kutsatuz lurpera.
Jaunak mirariren bat
daiela atera,
bestela gu guziok
or galduko gera.

- 16/ Aurtxoak eskoletan
asirik dagozte
kutsapen beldurragaz,
nik ala dot uste.
Danok asten bagera
ospital ta beste,
munduan izango da
nai ez dogun naste.
- 17/ Aundinak ikusteko
oraindik dauzkagu,
ugaritzen dago ta
artu biar kargu.
Orregaz jausten dana
bera da zapaldu,
ta bere etsipenagaz
besteren bat galdu.
- 18/ Naita aurrerantza izan
zientzia lagun,
geiago bearko da
au osatu daigun.
Alde batez pobreak,
bestalde dirudun,
geure Jainko maiteai
erregu daiogun.
- 19/ Mundua mundu dogun
ezkero gizonak
daukaz osa ezin ta
naigabetasunak.
Sifilis ta minbizi
lepragaz lagunak
etsai izan dauz beti
gure osasunak.

- 20/ Iñok osatutzea
lortuko baluke,
izugarrizko poza
artuko genduke.
Kanpai guzi-guziai
eman errepik
gaizoak botatzian
emendik jo ta ke.
- 21/ Jainkoagaz nik beti
daukot esperantza,
Beragaz ñoz bere
ez nadilla kantsa.
Oraziño bitartez
emon alabantza,
gaixo kentzen etorri
daiten mundurantza.

LANGABEZIA

- 1/ Bertsoratu gurean
eskatuz grazia,
motiboa izango
da langabezia.
Itzalezko gaixoa,
orra desgrazia,
apurkan esango dot
asunto guzia.

- 2/ Maitasuna genduen
demokraziara,
dirudunen gustura
emon asiera.
Mendebaldeko danak
alkarren antzera,
langabezi geiago
España aldera.

- 3/ Konpetentzi askogaz
konpondu eziña,
gubernuan partetik
bada artimaña.
Beste asko bezela
mugitu bagiña,
langabezi gutxigaz
gaur gendun España.

- 4/ Norantz artu ez jakin
jagi eta gero,
pentsatuaz bakarrik
burua dot bero.
Zifra aundiagoak
doguz egunero,
oriek jetxiterik
ez inok espero.
- 5/ Iru milloi inguru
gagoz lanik gabe,
gubernuan partetik
ez nai izan jabe.
Langille barririkan
artu nai ez dabe,
laberinto orretan
sartuak gerade.
- 6/ Langabezia zer dan
luzaro bizian
ikusirik daukot nik
nire desgrazian.
Zintzoz pezta batzuek
kutxagan baizian,
bape gero geratu
oiek amaitzian.
- 7/ Bestalde aur askotxo
etxean badozu,
ebazpide emoten
kostatuko jatzu.
Janari ta jantziak
ta eskolako maixu,
erotutzeko auxe
lelengoko pausu.

- 8/ Gaztetan ikusia
gerra bat etortzen,
langabezian erruz
orixe da sortzen.
Gero aspertu giñan
gosea pasatzen,
alangorik Jainkoai
ez goaz eskatzen.
- 9/ Gaizkien dagona da
gaztedi maitea,
karrera egin da gura
zerbait egitea.
Baiña ez ikusirik
zabalik atea,
orixe da motibo
drogari eldutea.
- 10/ Iñoz izan badot nik
biotz-tristezia,
etorri jatanean
au langabezia.
Gero lagunakgandik
abandonatzia,
ez neban pentsatzen nik
alan geratzia.
- 11/ Auteskunderik bada
politika-partez,
itxaropen ederrak
doguz orren artez.
Irabazten dabenak
aiztu zori txarrez,
alan aitzua naz ni
orreingandik errez.

- 12/ Orreingandikan ezer
logra nai badozu,
lelengo afiliatu
bearko zara zu.
Itzak emon da gero
ezer ez baukazu,
gezur apaindu batzuk
entzungo dituzu.
- 13/ Iñoz edo bein bada
lanikan agertu,
bat bear dan lekuan
eun dagozte prestu.
Azterketa zorrotzak
ta asko eskatu,
ez bada aitabitxirik
lan gabe geratu.
- 14/ Zuzentzeko kapazak
orreik badirade,
bereala asteko
bearturik daude.
Laster lantegi baten
sartuta ez bagaude,
ertzain edo polizi
sartuko gerade.
- 15/ Gure pazientzia
nola dan etendu,
kamaleoi bezela
ezin naz mantendu.
Bertan gosez iltzen
gura ez badogu,
auzoari lapurtzen
beartuz gaude gu.

SANTA AGEDA ESKEAN

Santa Agedaren martirioaren ondoren kantatutzeko bertsoak.

Etxeko nagusiari:

Etxe ontako nagusi jaunak
koplatutzera narama,
paregabea zuzentasunez
eta ospetsu dodana.
Zerua dozu irabazirik
zure gorputz ta arima,
bedeinkatua artu ziñuen
sabel, bular eta ama.

Etxe ontako nagusi jauna
lerdena ta dotorea,
galantasunak asko dituzu
eta geiago dotea.
Zurrumurrua dabil jendeak
beterik dozun kaxea,
arekin dozu duda bagarik
errege baten pareta.

Nagusi jauna buruzagia
amore ta aginpidez,

zintzotasuna erakusten dau
gizon orrek adibidez.
Noizikpein dago serio baiña
berek maite biotzez,
aundieneko maitetasunak
Jaunari emon dautsoez.

Etxeko andreari:

Etxeko andra zuzena dana
erri guziak badaki,
lagun urkoa maitatutzeko
prestua daukogu noski.
Bere altzoa zabalduzko
besteak baño obeki,
ez baliteke orrelangorik
danok geintikez erruki.

Etxeko andren buruaustek
gaur egun dirade franko,
seme-alaben utsak senarrai
agertu barik ixteko.
Naizta orien gangarrerai
barkazio emoteko,
Kristo Aitagaz bezela dogu
guziontzat bitarteko.

Ama Birjiña kontsolagarri,
ekarri zendun Jainkua,
guzi-guzion Salbadorea,
irabazteko zerua.
Kaliz astuna bitarte dala
bizia emondakua,
orregaitikan deitzen dautsogu
Ama Doloretakua.

Zaldun gazteari:

Zaldun gazteak asko diradez
neskak zoratutakoak,
egun argian ikusi eta
gabaz amestutakoak.
Duda bagarik oriek dira
begiakaz jotakoak,
zorion utsez beterik dagoz
bardin etxe ontakoak.

Zaldun gaztea, galanta eta
ederki landua zagoz,
obarik ez da neskatxarentzat
gorputz, agoz eta gogoz.
Zoragarriko pozez beterik
zuregana amodioz,
bat emoteko konforme dala
baldin balitu bi biotz.

Neskatxa gazteari:

Dama gaztea, nire biotza
amorioz daukat preso,
ez badaustazu esaten neri
zuk maite nauzula oso.
Gozotegian ez dagona lez
neuretzat zerala gozo,
iñor ez beste maite izaten
uste dot dogula kaso.

Enparantzetan erromeria,
txilibistu ta musike,
neskatxa bati begiaz joa
neroni izan naiteke.

Ori bai dala oso galanta,
dauko ospe ta palike,
zure aurraren aita izatea
biotzetikan nai neuke.

Dama gaztea, zuk badakizu
nik zaitudala naiago,
erle goseak udaberriko
lorea baño geiago.
Zure itxurari begiratuaz
erdi zoraturik nago,
zure senarra izan nai neuke
bestena baizen lenago.

Zuregaitikan urtutzen daukot,
dama gaztea, biotza,
nolakoa dan amorioa
esaten daukot nik lotsa.
Oetik jagi nazan guzian
eroritzen jat gorputza,
itzulbide bat baziña legez
begira zureganantza.

Txikientxuari:

Uda goienak ziur naroa
bidean neguganantza,
baita neguak beragan dakar
edurra eta izotza.
Aurtxo txikiak bete dau pozez
aita-amaren biotza,
bere aurpegiaz iruditzen jat
Jaungoikoaren bildotsa.

Aur txiki baten laztan gozoak
gurarik ezagutzia,
ama batentzat ez dau parerik
konparazioz jotzia.
Mundu ontako ondasun eta
baita be diru guzia,
bere aurpegiari begiratuaz
errez leiteke utzia.

Aurtxo txikia polit-polita,
gurasoaren pozgarri,
eguzki zuri garbia baizen
dagoenean ozkarbi.
Betargi pozez farre samurra
amari dautsazu jarri
besarkadaka, laztan egiñaz,
nekean kontsolagarri.

Politiko edo agintariari:

Agintarien aukera eta
batez be poderosua,
ondasunaren banaketa du
egite garrantzisua.
Auteskundetan botoen billa
gastatzen dabon txistua,
ez bedi izan erriarentzat
gari gabeko galtzua.

Oso txikerrak jaiotzen ziran da
gero aunditzen asiak,
guziok gera pertsonak baiña
diferentetzko klasiak.
Batzuk dirade odolez urdin,
bestek pobrezan jausiak,

osasun ona baldin badogu
Jaunari emon graziak.

Orain da beti izan doguna
euki biarra kontuan:
zer gauza dogun guregan eta
imini bere lekuan.
Gizon jakintsu asko diradez
batez be gaurko munduan,
etxeko jauna langorik ez da
bosteun legua barruan.

Eleiz-gizonai:

Eleiz-gizonen portakizunak
ao gaiztotan dabilta,
baiña orrela ez zan izango
bera apaiza balitza.
Kastidateko botoa artuz
eskatu abadegintza,
munduko gauzak aldetu eta
zabaldu Kristoren itza.

Mundu onetan sortu giñean
gizon eta andrazkuak,
zeru zabala guregantz
gura dau geure Jainkuak.
Jainkon Semea gizon eginda
gurutzean ildakuak,
bere lepoan artu ebazan
gu guztion pekatuak.

Aita Santua Erroman dago
Jesukristoren ordeko,

etxe ontako abade jauna
erri onetan parroko.
Salbadorean doia daduka
okerrak zuzendutzeko.
gurutzearen bedeinkaziñoz
zeruetara sartzeko.

JUSTIZIA-ESKE

- 1/ Ezaguera ondoren
justizia eske emen,
ezkerra eta eskuiniarekin
errege eta len.
Irurogei ta bost urten
bapere ez dot ikusten,
amairugarren Alfonson asi
ta illoban amaitzen.

- 2/ Alfonso oso biguna,
inguru baltza zuena,
destronatu ta atzerrirako
eldu zan eguna.
Desakordio zutena
senitartean geiena,
errepublika jarri ez eukiz
oiek batasuna.

- 3/ Errepublikak durunduz
itxaropenak emon duz,
bost urte barik gerra asi zan
kanpo eta barruz.
Traidoreak etxian duz
aleman gaiztoen buruz,
fazismo ori jarri dagien
Francori lagunduz.

- 4/ Euskadi libre nai bazan
lendakari bat bear zan,
Agirretarra Jose Antonio
izendatua zan.
Ura nola zintzoa zan
bizia emoten presta zan;
Jaunak zeruan dezala, gitxi
ez bezelako zan.
- 5/ Armamentu bereziak
gugan proгатzen asiak,
il ta erretzen Gernika eta
al zuten guziak.
Batzuk giñean biziak,
erdi lerturik utziak,
eta besteak zigortatu ta
argalduz gosiak.
- 6/ Franco jarri zan tronuan
erromatarren moduan,
eleiz ta diru ta militarrek
artuz inguruan.
Oso ez-ezagun zuan
arek justizi kontuan,
demokrazian etsaia zala
dakite munduan.
- 7/ Irurak lagundu ditu,
garrantzizko bidea artu,
agian ez zan aien bizian
besterik onartu.
Naiz *Caudillo* lurperatu
fazismoa ez da amaitu,
Erodes ori il jakun baiña
Pilatos geratu.

- 8/ Juan Karlos gero etorririk
opatu demokrazirik,
Adolfo Suárez ipiñi eban
ondoan jarririk.
Zeuden biak bat egiñik,
bestela ez zan gauz onik,
beartu ziran alkar egiten
nai bazan bakerik.
- 9/ Franco ikustian illik,
ez ebelako beldurrik,
Adolfo asi zerbait egiten
orreikaz pozturik.
Guzia eben lorturik,
lengo denporak aizturik,
orrela balitz ez zan izango
Ventitrés Efe'rik.
- 10/ Urrengo lendakaritza
Juan Karlosek konfiantza,
Adolfok zerbait egin nai baiña
galdu zun agintza.
Au da mendeku kiretsa,
anaien bekatu baltza,
ondorengoak erakutsi dau
kapaz ez dan antza.
- 11/ Gero Felipe nagusi,
iskanbilla eta guzi,
baiña diruak oien ospea
laster du erosi.
Botok alper irabazi,
bestek oztopatzen asi,
igo generala pentsatu arren
barriz bere jausi.

12/ Ainbat gizaldi diradez,
oraindik justizirik ez,
ez da mirari lenbizikoak
il baziran garrez.
Eskatu gendun mesedez,
erantzunikan emon ez,
gure gosea asetu barik
goiaz anka aurrez.

EUSKADIKO AGINTARIAK

- 1/ Munduko argia ikusitzean
aur txikiak dau negarra,
osagilletzat jarriten dogu
bere amaren bularra.
Gaixo dagoen erriak alan
dauka osatu bearra,
orretarako bearrezkoa
gizon zintzoen indarra.

- 2/ Franco joan eta demokrazian
gizon bat paregabia
Euskalerrian sei bat urtean
genduan lendakaria.
Ez ebalako ondo asetu
altsuen eskabidia,
indartsu oiek zarratu eutsen
aurrerantzako bidia.

- 3/ Anai artean alkarren aurka,
au gauza lotsagarria,
batzuen iritziz ote dagoen
pertsionalismo barria.
Ordurik ona P.S.O.E dogu
agintaritzan jarria,
pentsa zazute zer egoeran
lotu dan Euskalerria.

- 4/ Euskaldun jator geran danontzat
au tristura ta lotsea:
P.N.V.'ko neba-arrebak
asarrez borrokatzea!
Alkar ikusi eziña eta
zitalkerizko trantzea
orregaitikan aldetu dabe
Karlos Garaikoetxea.
- 5/ Arzallustarrik ez nai batzuek
ustez aberats dirala,
badakitela orrein bitartez
txarto biziko gerala.
Karlosen aurka mintzatzen dira
jakiñik zintzoa dala,
baiña erriak ez dau sinisten
guzur ori bereala.
- 6/ Aginduteak izan bear dau
gozoa mundu onetan,
dana aiztuta gizon ta andreak
besteik ez dabe pentsetan.
Nonbait ostondu agertu barik
erru duena benetan,
Karlos maitea destronatzea
ebatzi zan illunetan.
- 7/ Buruz ganera egin bagarik
danok ixil izateko,
itauntzen dautset eskubiderik
bada iñor zapaltzeko.
Zori gaiztoan denpora ontan
naikoa itxuurreko
badaukagula, altsu guztien
ondasun orreik zaintzeko.

- 8/ Euskaldun ona baztertu eta
P.S.O.E'rekin paktua,
esan leiteke ez dabela nai
betatu Estatutua.
Edozer gauza baiño naiago
aginpide ta dirua,
orreingaitikan apurtuko dau
eroren batek mundua.
- 9/ Guzurra dala esan leiteke
gerta diranak aspaldi,
erria zaintzen ez dakianak
alde daiela emendi.
Ea, euskaldun agintariak,
eskatzen doguz gauza bi:
maite daiguzan biotzetikan
Jainkoa eta Euskadi.

EUSKADI ETA EUSKERA

- 1/ Euskalerrian loretzen jaku
lenik saratsen landare,
Euskera Ama adoratzeko
non ete dogu altare?
Zutik ikusi nai dogu orreik
imini eben pillare,
gure ikurrin bordau eziñak
erdal jostun ta ditare.
- 2/ Sustraiak gaixoz ditun izkuntza,
sitsa dalarik zaiñian,
defenditzeko ez dira naiko
kaiku-txapelak soiñian.
Erdera emen agertzen bada
zezendurik tamaiñian,
adarrak lotuz amildu daigun
Euskera Aman oiñian.
- 3/ Frantzi ta España zizini(1) txarrez
itogarrian dabilta,
nai ta nai ezko zerraila imini,
erdera aoko giltza.
Gu mututean ugazabatu
eta ordezkoa altza,
burdin esi au ez bada apurtzen
koska larrian gabiltza.

(1) zizini: intentzio.

- 4/ Amak umea kontserbatzeko
sabelean dau urzorro,
erri saltzaille dan aitagoiak
arpegieran mozorro.
Egartsu eta kinka larri dan
euskerak nai dau ur txorro,
omentsu gerta daiten garbituz
atzerriko dan kotxorro(2).
- 5/ Sekula santan ez dot nik entzun
albiste tristeagorik,
garai batean gure izkuntza
galazotea langorik.
Alde aurretik pentsatuz ekar
tamaiñazko mordoillorik,
alan da guzi bere ez gaituz
imini oraindik lur jorik.
- 6/ Adinduaren dei onen bidez
nai dot izkuntza indartu,
geurea danez zorrez gagoz ta
iñok ez daien bakartu.
Aurrera beti euskeran alde
naita emaitza beartu,
bere senean dan euskalduna
ez daiten alan lokartu.
- 7/ Euskal sustraiak ditunari ta
danai kontseju ematen,
gure izkuntza indartuteko
zer egin bear daukaten.
Izkuntza eta oitura onak
zaindu daitezela baten,
literatura abestutea
bertsoa dala esaten.

(2) Kotxorro: indabearen edo babarrunaren zomorro edo ar bat.

- 8/ Ez naz euskera batuan aurka,
pozik aipa bakotxean,
baiña deitxo bat egin gura dot
kontseju emole antzean:
iztegietan ez dan izkera
usadio aberatsean
or daukiela baserrian ta
ez itxiteko galtzean.
- 9/ Entzun izan dot eta zergaitik
egin nai neuke galdera:
ikastetxetik urten ta jausi
ikaslek erdal taldera.
Lotsatu barik burua jasoz
munduz ibilliko gera,
ez itz batzuek baizik osoan
mintzatuz gure euskera.
- 10/ Asarrearen suaz ixtilu
aita-semeak etxean,
aitak erderaz ez jakin eta
semek euskera galtzean.
Au da baserrietatik jatxiz
uri andian sartzean,
erri ta euskerai iges eginda
gure ama lurra saltzean.
- 11/ Baldin mediku bagiña danok
euskerak daukan gaixuaz,
osasun ona lortuko geuntsan
denpora gutxin plazuaz.
Au jazoera ageria da
gutar askoren kasuaz,
maitatu ez ta abandonatu
desprezioan pixuaz.

12/ Euskera Ama maitagarria,
nik zaitudala naiago
erle goseak udaberriko
lorea baiño geiago.
Uste bezela ugaritua
gure izkuntza ez dago,
konpontz'ezpada bota beariko,
kartak atinduz, ordago(3).

13/ Besarkaturik amaituz opa
laguntasun betikoa,
gogor ta ugari gerta daitean
gure euskeran giroa.
Geugaz betiko izan dagigun
len, orain eta geroa,
euskerazale guziori orain
orra or agur beroa.

(3) Kartak atinduz: kartak aoz gora jarriz.

OTAN BAI, OTAN EZ

- 1/ Zeruko izartegia dogu
gure osasungarria,
guzietatik lelengoena
eguzkiaren argia.
Gizonak ez dau ortan parterik,
au da ikaragarria,
begizatzean erakusten dau
Norbaitek dala jarria.

- 2/ Españiak dau gaixo aundi bat
iñoiz osatu gabea:
goraldu beti aberatsa ta
azpiratzea pobrea.
Engañatzeko ekarri deusku
ezker gobernadorea,
zorigaiztoan ez dogu bera
besteak baiño obea.

- 3/ Calvo Sotelo agintariak,
U.C.D. letra aietan,
itandu barik sartu ginduzan
OTAN illerri aretan.
Beste alderdi batzuek bere
lagun zirean orretan,
emon euskuzan azalpenakaz
ez da erria salbetan.

- 4/ Nola jausiak izaten diran
etxe zimendu gabeak,
ori bezela jausi zirean
orrein gobernadoreak.
Baiña erriak igerri dautso
galdu dirala adorea,
bata kendu ta bestea imini,
ta gu len baizen pobreak.
- 5/ Lau aizetara zabaldu dabe
demokrazia badala,
lendikan goian egoana oindik
gallurrean dagoala.
Oitura oiek esan liteke
lengo dotriñak dirala,
gu zigortutzen asi dirade
lendik besteak bezala.
- 6/ Premiazko zan P.S.O.E.'ntzako
cambio opatutzea,
eta ganera zortzireun milla
lantoki formatutzea.
Orrein partetik itzak emon da
OTAN'dik aldetutzea,
orain itzuli gogoa eta
nai dau bertan geratzea.
- 7/ Zorionean Euskadin dogu
irteera irabazi,
bestela danok erreko giñan
itxaso, lur eta guzi.
Ardura barik ibili eta
bizirik erretzen asi,
orrein bitartez ondamen ori
etorriko da lenbizi.

8/ Zortzi bertsoak amaitutzean
nai neukez baten sartzea,
galdera orreik nola daukaten
naastearen trazea.
Trunboi aundi bat entzun orduan
Santa Barbara deitzea,
bardin izango da orrein itzak
paper bustiz azaltzea.

IRUGARREN KORRIKARI

- 1/ Korrika ontan neuk gura neuke
jarri argitaratua,
gure euskera nola izan zan
urtetan zokoratua.
Galdua gendun izan ez balitz
garai ontan askatua,
gure jaiotza ikusitako
ama lur bedeinkatua.

Errepika:

*Euskadiko lur maitea,
nik zaitudala naiago,
aur txiki batek amaren
titia baiño geiago.
Antziñatikan sustraiak
zuregan emana nago,
orrela maitatzen zaitut
lur maiterikan badago.*

- 2/ Euskadik ditu zazpi probintzi,
baita biotza Gernikan,
zatitan gaude frantzesak eta
españatarrakaitikan.
Ez dabelako eman nai orreik
danok eskatugaitikan,

alan gabiltza askatasuna
billatutzeko korrikan.

- 3/ Arroturikan dagozte biak
indartsuago dirala,
emen ta orain eske gagoz gu,
alferrik izan, tamala!
Jakin gurarik gagoz itxiko
bazenduteke azala,
beste batzuek egin ezkeru
zuek Euskadiri bezala.
- 4/ Bilbon urten da Basauri dago,
Arrigorriaga zear,
Zaratamotik pasa, Galdakao,
Larrabetzu eta abar.
Baita orrelan pasatu gura
Ego-Euskadi ta Ipar,
zeñek orrela gu ikusita
ez dau alegratu bear?
- 5/ Agurtutzea nai dot biotzez
justizia eskatuta,
mundu ontan guk txikientzako
ez dogu ezagutu ta.
Gogotik bear dogu jarraitu
lur au geurea dogu ta,
danon lanaren indarrarekin
iminiaz askatuta.

ZARTZAROA

- 1/ Zarrengana noa ni
mosu edo kantuz,
urte ta ule zuri
bien errespetuz,
orrein pasadizuak
garbi esplikatz,
papela eta luma
eskuetan artuz.

- 2/ Nire biotzak ez dau
besterik eskatu;
zartzaroaren kontuz
bertsoak kantatu.
Egin badot pekatu
gaiztotzat ez artu,
parkeske nator eta
eidazu onartu.

- 3/ Iñok be gura ez dau
mundutik aldetu,
urte asko pillatuz
emoia agortu.
Odolak ur biurtu,
medikuz beartu,
gurarik orrek ez dau
gaitz ori osatu.

- 4/ Birieta(1) estutu,
biotza larritu,
azur danak agertu,
giarrak gogortu.
Zankoetan baldartu,
gerria okertu,
bizkarretan makurtu,
azala zimurtu.
- 5/ Begi biak lausotu,
belarriak gortu,
indar barik geratu
ta biotzberatu.
Baibena ezin lotuz
anparu beartu,
osoan ez gauzatuz
eriotzeratu.
- 6/ Bazara arduratu
orazio-kontu,
Jaunak egingo zaitu
zeruetan sartu.
Jesus bitarte artu,
Aitari eskatu,
santu ta aingeruakaz
gloria kantatu.

(1) Birieta: biriketan.

ANDREKARI BATI

- 1/ Gauza gaiztorik nork bere kontra
iñok nai ez dau ikusi,
orain esango dodan gizonak
bertsoak ditu merezi.
Onik egiten albokoari
iñoz ez eban ikasi,
ori bezela dabillenari
zigorra emoten asi.

- 2/ Illunetako gauza batzuek
gura neukez nik argitu,
aberastasun aundiak izan,
oso pobre da gelditu.
Aragikeriz ezin zalako
andre askogaz kokitu,
auzotegiak etxe ta baratz
guztiak ondatu ditu.

- 3/ Andrekaria izan leiteke
gizon danez ortaraiño,
orrenbesteko diru gastatzen
ez dot ikusi oraindaiño.
Idi buztarriz ikatza eroan
sarri Bilbo alderaiño,
andre bategaz gaba pasatuz
gastatu galtzetaraiño.

- 4/ Orren ondoren gustatu jakon
beste andre bat benetan,
itz gozoakaz beregantzeko
ibilli gabe txantxetan.
Baiña eziñik arteztu ori
bere xaxara orretan,
daukon dirua ez dau naikoa,
auzora geio topetan.
- 5/ Emeretzi bat etxalde zitun
gutxienez gastatuak,
basamendiko arbolak eta
baratza edo ortuak.
Ganera barriz asko zirean
Aurrezki Kutxan diruak,
aragiaren bekatu dala
eroaten deabruak.
- 6/ Emazte eta seme-alabak
altzau eziñik begirik,
senperrenakaz lantegietan
jan alko bazan ogirik,
Ganera alan geratutzean
emon naikoa lotsarik,
ez zalakoan iñoz be entzun
orren neurriko gauzarik.
- 7/ Bertso barriak jarriagaitik
txarrik ez jaku obatzen,
nire ustean orrelangoak
ez diralako lotsatzen.
Iñor ez balitz konformatuko
gizon orreikaz ezkontzen,
ondorengoak ez dabe zetan
ibili arpegia ostontzen.

8/ Ez balirake oien buruak
gurari txarren labeak,
nai daben dana ez leuke egingo
orduak lotsagabeak.
Inpernurako bidea dauko
txarraren egitadeak,
emango dautse kastigu latza
zeru-lurraren Jabeak.

9/ Zuk egindako bekatu orrek
gaitza dau barkazioa,
Trinidadeko iru Pertsonak
beren kargu juizioa.
Pixuan antxe jarriko dabe
zuk egindako azioa,
zure arima gaixoak ez dau
erreza salbazioa.

DAMUTUTAKO BEKATARIA

- 1/ Mundu, deabru eta aragi
ez dira iñoz komeni,
baiña oraintxe orretzek maite
dirala ustez nago ni.
Emeko gauzak onartzen doguz,
Jauna lurpean imini,
baiña zerura sar gura bada
oraziñoak eskeini.

- 2/ Naiz eta pentsa nire buruan
jaun eta jaube nazala,
eriotza or etorriko jat
gabaz otsoa bezala.
Sinis gogorra izan naz eta
pentsa erratu dodala,
deabruakaz parte artzea
orra arimak tamala.

- 3/ Amar dirade mandamentuak,
bitan daukie sartzia,
ebazpidea izan genduan
erlijioko zientzia:
Jaungoikoaren izen santua
lelengo maitatutzia,
eta ondoren lagun urkoa,
eginkizunen giltzia.

- 4/ Aita Moisesek arbelan zitun
mandamentuak idatzi,
zeruan sartu gura dauenak
kunplitu barik ez itxi.
Bazekiela nola gaitza dan
ta adore gabe igesi,
asko dirade deituak baiño
gitxik zerua irabazi.
- 5/ Arima asko galdu ez daiten
Kristo zan munduratua,
neskatxa gazte garbi bategan
Espirituak sortua.
Gu salbatzera etorri baiña
txarto izan zan artua,
gorroto bidez Kalbarioan
gendun gurutzeratua.
- 6/ Nolako pisu astuna zeukan
gure pekatuakaitik,
izerdi orde z odol tantadak
narruko poroetatik.
Parkaziñoa eskatu eutson
Aita Jaunari gugaitik
gurutzen josi eta il eben
gure txarkeriagaitik.
- 7/ Deabrutarrak garaile jarri
Jesus gurutzeratuta,
iru egunen berbiztutzeak
itxi danak lotsatuta.
Munduko bere jarraitzaleak
ezin desanparatuta,
mirari asko eginda jarri
inperua azpiratuta.

- 8/ Eskerrak emon bearra dogu
denbora emon deusku ta,
zure bidera biurtutzeko
deabrua baztertuta.
Nire arimaren arerioak
gura ditut ukatuta,
Aita, Seme ta Espiritua
irurak nigan artuta.
- 9/ Berak Golgotan bezela orain
parkaziño nik eskatu,
Jesus iltzeaz gurutze artan
oso egin naz tristatu.
Biotza daukot nik taupadaka
egin dot-eta pekatu,
damutasunaz gura dot, Jauna,
zeruko atean sartu.

JOSU ARTETXE, NIRE LOBA ZANARI

Josu Artetxe Ayesta, nire arreba baten semea zan, Zeberioako Idirin auzoan, Iru-atxeta baserrian jaioa. Eubako Aita Pasiotarretan ikasle izan ondoren, beargin jatorra zala, dana itxirik ETA-n sartu zan, Frantzira igarota. Donosti ondoko Altzan il zan, eun polizik ura egoan etxea inguratuta eukatela, 1973 urteko abenduaren 6-an. Nik pena aundia artu neban, oso loba maitea zan niretzat eta.

- 1/ Euskaldunaren odola bada
ikurriñaren bizia,
zuk, nire loba, emonarekin
izan daiela luzia.
Ezaguera eban ezkerro
eukan justizi gosia,
bere izateak omenaldi bat
dauko ondo merezia.

- 2/ Erdi zabalik egon atea
Francok imini itxita,
goraldu barik Euskalerra
gertatu jaku jetxita.
Askatutzeko burruka bear
aita ta ama itxita,
Kristok bezala errian alde
bizia emon josita.

- 3/ Francon dotriñaz aspertu eta
itxarotean luzaro,
surikan gabe irakin eta
odola eukan ain bero.
Besten onerantz izate dana
emona daukon ezkerro,
ogei urtegaz amaitu jakon
mundu ontako gaztaro.
- 4/ Gudari onen ardurak ziran
ama lurraren zaindari,
eriotzaren bitartez eban
irabazi domiñ ori.
Zintzotasuna agertu eutsen
erria eta amari,
orregaitikan ez da aitzuko,
Josu, zuregaz Euskadi.
- 5/ Lagun batzuek atxilotuaz
baita bere zigortatu,
Josuk eukazan pasabideak
beldurragaz deklaratu.
Lotan dagola arrapatzeko
poliziak inguratu,
baiña tiroka erantzun eutsen
ebazanean susmatu.
- 6/ Ondoan zeuden danak aldetu
Josu maitea iltzian,
eun bat polizi metralletagaz
Altzako errian zian.
Entzun ondoren bere lagunak
oso aserratutzian,
odeietaiño Carrero Blanco
bialdu eben kotxian(1).

(1) Andik egun gitxira il eben, izan be, Carrero Blanco.

- 7/ Ori orrela gerta ez balitz
ta aitzu zuen ideak,
atzerri edo kartzelan ziran
gaurko gobernadoreak.
Demokrazia osoa dala
gaur esaten dau jendeak,
orrein erruaz emen il dira
ama askoren semeak.
- 8/ Semea iltzea ama batentzat
negargarria, jakiña,
sufrementuan bitartez zaude
Doloretako Birjiña.
Negar malkoaz urtu leiteke
euskaldun jator ta fiña,
illetarikan ez egiteko
borreroak alegiña.
- 9/ Josu maite ta beste gudari
il diranen izenean,
monumentu bat egin bearrez
gagoz gu Gorbai ganean,
urregorritzko letra auekin
ikurriñaren barnean:
«Gora Euskadi askatuta ta
bizi nai dogu bakean».

AZERIAREN TRANPAK

- 1/ Zenbat tranpa dituen
azeri pestiak,
orreri par emoten
ez kapaz bestiak.
Lurrean asko dira
basoko piztiak,
pastoreai tripalak
orreik ikustiak.

- 2/ Onen biktima dira
bildots ta ardia,
auntzak aumakaz eta
egazti taldia.
Pozoiaz il daitean
jarri zigorkia,
jan ezaz engañatu
txakur ta eiztaria.

- 3/ Konturatu bagarik
txakurrak jan gozo,
bereala uraxe
lerturikan oso.
Kazari txakur gabe
ori dala kaso,
soldata lor eziñez
gosegaz preso.

- 4/ Kazaria barriztu
txakurra erosita,
soldata lortuteko
azeri koxita.
Baiña badauzko tranpak
amari ikasita,
engañatzen badaki
atzean itxita.
- 5/ Arrastoai zearo
txakurrak jarraitu,
jan bear eben eta
koban prisaz sartu.
Andikan urteteko
goseak beartu,
sarrerako zepoak
barriz atzeratu.
- 6/ Maltzurkeri askogaz
albotik zulatu,
andikan ospa egin
ta ziria sartu.
Kazari gizajoak
ez eben onartu,
azeri gabe ziran
barrero geratu.
- 7/ Gosez bete-bete
azeria jun da,
gabaz non ibilli dan
garbi ezagun da.
Berroi ta bost ardiren
odolak edanda,
atzea eman die
tontoa ez zan da.

- 8/ Odola ateratzeko
azeriak ortzak,
oso luzeak eta
ganera zorrotzak.
Orreikaz iltzen dituz
ardi ta bildotsak,
tristuraz betetzeko
artzaïen biotzak.
- 9/ Badu maltzurkeri ta
grîña itxusirik,
onenak eskojitu
jolasten asirik.
Bananduaz saltoka
agiña erantsirik,
odola zurrupatu
okela itxirik.
- 10/ Orrelan segitu dau
arrapatu arte,
koba artan barriro
arturikan parte.
Bigarren umaldia
lortuten badute,
zer egiñik naikoa
orreikaz daukate.
- 11/ Uste dot badogula
betiraungo lana,
batzuk illagaitikan
libre beste dana.
Illik edo bizirik
eskuratzen dana,
anka-eskuak lotuz
eskean darama.

- 12/ Andre eta gizonak
auzuna batian,
korrua formatuaz
esaten ai zian:
«Madarikatu ori
zu gaiztakerian!»
Arek burua gorde
bere istartian.
- 13/ Zor guztiak ordaindu
kazariarenak,
baserriak korrituz
emon zerbait denak.
Orretan egun asko,
baita jan-edanak,
eskopeta arturik
olan dabiltzanak.
- 14/ Nolako malezia
ez daben izango,
pertsonean aurrean
ez dabela jango.
Naiz ta gosez egon
ez andik urtengo,
obeditzea baiño
iltzea naiago.
- 15/ Ona azeriaren
atarramenduak,
Luziferrek emon da
lurrez ordainduak.
Gizonen andinai ta
aginte kontuak,
pizti txiki bategaz
dira zapalduak.

DIRUAREN EZBARDINTASUNAK

- 1/ Ezbardintasun oiek
bertsoratu naute,
batzuek diru lar ta
bestek gutxi dute.
Astero millakak il
goseak aulduite,
entzuteaz bakarrik
nago tristatute.
- 2/ Lendik gosez beterik
Txina ta India,
baltzak eta guregan
an baizen andia.
Izan badabe bere
gure lagundia,
Ego-Amerikeak
daroa gindia.
- 3/ Beatz-arria nainon(1)
asko ditugula,
besteen ganetikan
gaur egun futbola.
Oneri dagokio
goiengo kupula,
langillei zurrupatur
izerdi ta odola.

(1) Beatz-arria nainon: tropezu edo oztopo arria non-nai.

- 4/ Pasadizoak gura
dodaz izendatu,
futbolista orreikaz
bada zer kontatu.
Gorputzeko pisua
naiz urrez pagatu,
emondako diruak
ori be pasatu.
- 5/ Atzerritik ekarri
baldintzaz beterik,
dolarretan ordaindu
pezeta gaberik.
Ikasketak bere bai
emeko aldetik,
bukaeran eroan
dibisak emetik.
- 6/ Futbola komertzio
biurtuta dago,
ekipo andi oien
guraritarako.
Orreik dirade kapaz
danak mugitzeko,
beraien kapritxoan
dantza egiteko.
- 7/ Au da barbarokeri
ikaragarria:
partidu bakotxeko
diru azkarria(2).
Oneikandik aparte
urteko saria,
ta illeroko propinak
daukan obaria.

(2) Diru azkarria: dirutza andia.

- 8/ Kontutan artzen bada
dirutza guzia,
sumatuko da zifra
aundi ta luzia.
Gure urteko soldata
–orra desgrazia!-
futbolistak astero
dau irabazia.
- 9/ Goien dan langillea
sari andikoa,
beste batzuek dauke
orren erdikoa.
Ez eizu pentsa dala
guzurbidekoa,
orain esango deusut
mailla obekoa.
- 10/ Lau milloi jubilatu,
ta bi lan ezeko,
sari txikienera
allega gabeko.
Jarri gura badogu
egokibideko,
beste mundu batean
gaude biziteko.
- 11/ Bizi guzi-guzian
izerdi botatzen,
jubilatu ondoren
miseri pasatzen.
Banatzaille obarik
ez bada azaltzen,
asko kostako jaku
gosea uxatzen.

- 12/ Gerra ta armamentu
gastatzen alperrik,
munduaren erdia
ogia gaberik.
Ez badogu iminten
jokera oberik,
guregan ez da izango
sekulan bakerik.
- 13/ Jainkoak egin badau
guzientzat lurra,
azpiratu dagigun
tranpa ta guzurra.
Baldin ez bada kentzen
gugan dan bildurra,
irabaziko dogu
barriz be egurra.
- 14/ Orra, biotz gogorra
bigundu gabea,
ezin dozu maitatu
auzoko pobrea.
Banatuko bazendu
gaiñezko kaxea,
salbatuko zenduke
zeure arimea.
- 15/ Jaunak eskatzen deutsu
konturatutzeko,
arima dozu eta
ura salbatzeko.
Orain denporaz zagoz
deia entzuteko,
munduko gauzak utziz
Berai segitzeko.

AITA LINO AKESOLO ZANARI

- 1/ Lendik landu gabea,
gaur jubilatua,
Lino Ayesta nire
grazian datua.
Zeberion jaio ta
aziz aldatua,
Basaurin bizitzeko
egoitza artua.
- 2/ Errespetatuz Jauna
ta gorpu berbera,
izenkidek naroa
bertsoen aldera.
Erremedia ezin
gaur dogun galera:
Aita Lino il jaku,
lutuz da euskera.
- 3/ Bateatu ondoren
guziz giristiño,
Kriston deia onartuz
karmeldar kutriño(1).
Ondo informatua
mintza baiño leno,
ixil, kautu, apala,
ala gendun Lino.

(1) kutriño: zintzo.

- 4/ Elexa lutuz dago,
erria bere bai,
zorrez gauden ezkerro
zuga gara garbai,
Araba ta Gipuzko,
Naparro ta Bizkai,
Ipar-Euskadirekin
itxitean deslai(2).
- 5/ Obako dimostarra,
oba ezin mutilla,
karmeldar ordenako
elextar umilla.
Noblezia maite ta
ez nai iskanbilla,
ez zalako ibilli
arrakastan billa.
- 6/ Euskera goraldua
egi garbietan,
goiz, arrats, gaba eta
eguerdietan.
Eragin dau idazle,
maixu eskoletan,
baita doatsu diran
bertsolarietan.
- 7/ Adimenez aurrena,
otoitzez zintzoa,
gogatsu landu zendun
euskera mintzoa.
Kunplitua izanik
munduko kurtsoa,
zerua izan dozu
sari errenboltsoa.

(2) deslai: eskutik utzia, abandonatua.

- 8/ Jakiturian parrik
ez euskal lurrian,
bein ikusia gorde
begien aurrean.
Idatziz eta aoz
era jatorrean
ebazpidea zendun
epe laburrean.
- 9/ Ezin geratu dira
gaur papel bustiak,
arakatu ziñuzan
liburu guztiak.
Zure meritu onak
bestentzat utziak,
orreik jarri dituzu
onorez jantziak.
- 10/ Eske gagoz biotzez
ta ez azaletik,
zain daigun zuk lortua
era apaletik.
Zure borondate ta
Jaunaren aldetik
lagun zakiguz arren
zeru zabaletik.
- 11/ Orra agurra, Lino,
euskal gizartean,
Josefateko landan
ikusi artean.
Aita Jaunak zaitzala
santuen artean,
zeruko doatsuen
maian ezartean.

GIZON ETA ANDREEN TRIKIMAILLUAK

Lelengo pozik, gero asarre,
senar-emazten kontuak,
batzuek oso konforme baiña
beste asko bereiztuak.
Ez da erreza iñorentzako
egiten danon gustuak,
agaitik emen dadukazuez
bakotxan ikuspuntuak.

Gizonak:

Emakumean burua ez da
gaur dagokion lekuan,
eziñezkoa gizonai eska
leloak diralakuan.
«Andra-burua manda-burua»
errefrauaren eskuan,
gabaz dirua sartzea baizen
zuloa daukon zakuan.

Andrak:

Demokrazian atarramentuz
bikote asko bereiztu,
andrak bardintza eskatutzean
gizonak alan nai eztu.
Lan arin eta soldataz bardin
emakumeak baieztu,
arriskutsu ta astun diranak
besten lepoan aurkeztu.

Gizonak:

Lujozko jantzi soñean eta
ulea apaintzen astero,
senarra trukatuko zenduke
lenik ez bada urtero.
Nola atrebidu zure langoa
artzen, au jakin ezkerro?
Egunez alde egin dauenak
gauetz damurik ez gero.

Andrak:

Ezkongaietan maitagarria,
ezkontzean agintari,
zuengandikan banatutzea
ez da iñongo mirari.
Kanpo eder ta etxe-kalteak,
promes faltsoa ugari,
su emotea merezi leuke
zure lango gizonari.

Gizonak:

Diruzalea dan andrarentzat
eskrupulorik ez dela,
senar aberats artuteko prest
naiz eta izan dendela(1).
Sexuan lanak bestekin egin,
kanpokoentzat fidela,
bizitza txarra emon ondoren
etxeikoentzat fardela.

Andrak:

Gizonai andrak gogait eragin
eskatutzean bardintza,
abusatzaille andi diranez
bengantzan gorde agintza.
Etxejaun orreik emon deuskue
ezezko eta gordintza,
nor-geiagoka bata-besteai
desafiatuz dabilta.

Gizonak:

Poderosoak baginān bere
gaur andrea da nagusi,
guk arazoak izango doguz
nai eta nai ez ikusi.
Antxiñekoa dan errefrau
agertutzea merezi:
emakumean leiai gizona
zugaitz ganera igesi.

(1) Dendela: erdi leloa.

Andrak:

Zapal gaitue bizi guzian
ezin geiagorartiño,
mendean eta oinperatuak
itxaso, lur eta laiño.
Desonraturik burla eginda
aspertu moñoetaraiño,
orain txakurra oba da izan
lenago emazte baiño.

ZAR ETA GAZTEEN ADI EZIÑAK, ERRIAK AZKEN ERABAGIA EMONIK

Zarrak:

Agertu naian zar eta gazten
tarte ezin alkartuak,
atso-agurak ezjakiñak ta
gazteak estudiatuak.
Gaurko ogi ta bigarko gose
oraingo ezkontz-tratuak,
egun batean muki jaten da
besten dibortziatuak.

Gazteak:

Naigabe eta jateko txarra
eguneroko ogiak,
antxiñeko dan usariotik
mendaturikan begiak.
Dirutsu eta jakitun danak
ez ziran eskuz garbiak,
pobreai guzur sartu ondoren
estalitzeko egiak.

Zarrak:

Ez bada amor emon nai eta
diferentziak urbildu,
logratu diran aurrerapenak
errez dirade amildu.
Jakiturian ponposo jarri,
lan kontuetan kikildu,
gurasoaren kontseju onak
probatu gabe muskildu.

Gazteak:

Argal da pobre famili asko
gosekildurik geienak,
makilka eta bizi eziñik
egia esaten dabenak.
Eguzkitatik eguzkiraiño
lan egin bear ebenak.
opil otzagaz urdai apur bat
alimenturik onenak.

Zarrak:

Gazteakgandik ezin leiteke
ezer danikan espero,
zurruta eta droga txar ortan
sartuak diran ezkerero.
Maltzurkeriaz dirua kendu
erositeko auts bero,
guraso maitek buruz-belarri
ez egiteko bezero.

Gazteak:

Zuen goseak ixilik eta
gure drogagaz oiuka,
dirutsu eta agintariak
zuekaz laguntza dauka.
Kameluakaz zabaldu eta
oiek atzetik kukuka,
bata zein beste diruagaitik
bizia amaitzen apurka.

Zarrak:

Buru-auskarri da guretzako,
batez be ulerteziña,
nola ta nori gerta leiteken
gaixo norberak jakiña.
Gizon nazenez pekataria,
orretaz ez utseziña,
baiña ainbeste dakizun orrek
droga aldetu eziña.

Gazteak:

Miseri artan bizi izanda
aurrezkitutzen dirua,
nekazaritza egunez eta
gabaz egiten gorua.
Egun bat ondo pasatu gabe
illik joteko sorua,
txapelarentzat bakarrik ez da
egin gizonen burua.

Erriaren erabagia:

Alkar kulpatuz iñok ez emon
ebazpidean pausorik,
al dunai bistan par emoteko
ez da bearko lausorik.
Norberekeri utsez aparte
maitatu barik auzorik,
ez dot nik uste bestek lumatuz
jango dozula usorik.

AITA PATXIRI

- 1/ Iñok merezi badau
gaur bertsogintzea,
Aita Patxi maite ta
bere bizitzea.
Jesukriston dotriña
munduz zabaltzea,
kunplizaillearentzat
zeruko giltzea.

- 2/ Jaunak gure artean
testigu jarria,
gogorra biguntzeko
mundura ekarria.
Sarritan izanik be
momentu larria,
askori emon deutso
Jainko-egarria.

- 3/ Makiña bat bider zan
bartzartutakoa,
berba astun da burlez
barre egindakoa.
Obra da amodio
agertutakoa,
zenbat txarrago bizi
gurago Jainkoa.

- 4/ Milagro^z elduten zan
bazar guztietan,
kamiñoetan autoz,
oiñez basoetan.
Altoa botateaz
txoferra ernegetan,
bera errosaioa
asi errezetan.
- 5/ Kamioilari askok
erantzun ez emon,
apur bat zoraturik
Patxi ete dagon.
Ikusirik zer poz ta
alegrantzi daukon,
errezetan asi ta
lagunduten eutson.
- 6/ Ekatz denporalean
iño^z edurretan,
jan barik ta bustita
sandale utsetan.
Berari begituaz
txoferra pentsetan:
«Jaunaren ordekoa
auxe da benetan».
- 7/ Beste askotan bere
erri zabaletan
ardi galduen billa
nekeak pasetan.
Artzai orren deseo
Jaunagan betetan,
iñondik al ezker
arimak salbetan.

- 8/ Jaunari erregutuz
emon alabantza,
lagunduten etorri
daiten mundurantz.
Besteri on egiten
iñoz ez da kantsa,
dana egia dala
nire testigantza.
- 9/ Gose-egarri eta
otz-bero tristeak
gugaitik pasau ditu
Aitetxu maiteak.
Ur bizizko iturri
guri ekarteak
artuazoko gaitu
Jaunagaz parteak.
- 10/ Arerioa esan
baiña aitabitxi,
desanparauta orrek
iñor ez dau itxi.
Nekea franko eta
asaskaldi gitxi(1),
merezimentuz goien
bego Aita Patxi.

(1) Asaskaldi: lasaialdi.

PARADISUKO BERTSOAK EDO DISKORDIAKO SAGARRA

- 1/ Gure Jainkoak gizonarentzat
eukan onena nai zuan,
lurrai bizia emon ondoren
jarriaz paradisuan.
Lupetzarekin bere irudiz
Adan egiña bazuan,
aren saietsaz emakumea,
au da Ebaren kasuan.
- 2/ Adan ta Eba zirean gure
lelengoko gurasoak,
Jaunagandikan lortu ebezan
pribilejio osoak.
Paradisuko gozamenaren
jaube zirean jasoak,
galazotako fruitu jateak
ekarri be arazoak.
- 3/ Aita Jainkoak imini zuan
«pekatu buru» geitua:(1)
ongia eta gaizkia eukan
arbola orren fruitua.
Naiz eta izan ezin obea
aurretiko meritua,
jaten ebana berealaxe
andikan despeditua.

(1) geitua: deitua.

- 4/ Suge itxura artuz Ebari
Satan agertu aurrean,
ondasun danen jaun eta jaube
nola zan bera lurrean.
«Obeditzean emongo deusut
zernai ta aixe parrean,
garrantzizko da aitatu dodan
fruitu edo sagarrean».
- 5/ Ebak jan eta emon Adani,
arek bai artu be pozik,
momentu artan konturatuaz
biak zirala billusik.
Jaunak deitzean ez erantzun da
lotsatuz ostondu baizik,
bazekien-ta andik jaurtiak
zirala kunplitu ezik.
- 6/ «Alde emetik, pekatariak
ta Satanasen kiratsa,
kopet izerdiz ogia jaten
ez dozue izango erraza.
Ugal zaitezte eta mantendu
zeurok ta zuen arraza».
Aiek jaurti ta paradisua
giltzaz itxitako plaza.
- 7/ Jatorrizko dan pekatuaren
loiduraz bi seme lortu,
Adanengandik emazte Ebaren
sabelean ziran sortu.
Aurrena Kain zan, zeken gaiztoa,
iñok ezin zun makurtu,
mutiko zala aita ta ama
makillarekin zigortu.

- 8/ Zintzo on utsa ta kunplizaille,
Abel deitzen zan bestea,
inbidi eta gorroto bidez
il eban zarrak gaztea.
Gurasoentzat naigabe txarra,
benetan oso tristea,
biotz-beratuz Jaunari eska
seme bat az ez ixtea.
- 9/ Entzun deutsie Jaungoiko Jaunak,
baita emon irugarrena,
zintzo ta ona Abel bezela,
iruretan ederrena.
Oindik Adanek ez eban lortu
pekatuen parkamena,
Jesus gurutzen josiz ilteak
kenduko eban kondena.
- 10/ Istori onek emoten deusku
zerbait ikasi bearra:
toki ontara etorri eta
ez da faltako negarra.
Diru gosez ibilitea
dala Satanen legarra,
Jaunagan bizi nai bada ez jan
diskordiako sagarra.

ARRANKUDIAGAKO ERRIARI

- 1/ Goikoganaren gerizpean zu
Jaunak bedeinka zaitzala,
Arrankudiaga izena dozun
erri zintzo ta leiala.
Zordun naz eta ordain nai deutsut
bertsotan emon abala,
gorputz, arima eta amore,
irurak baten dirala.

- 2/ Zugaitz onakaz ur direanak
gerizpe onik badute,
zaldun ta dama galantak azten
zuk badaukozu birtute.
Zeureganatu niñuzun noski
emakume bat bitarte,
suerte obarik ez dot nik izan
jaio nintzanik gaur arte.

- 3/ Karu ta eskas izaten dira
mundu onetan gauz onak,
karuagoak nortasun eta
zintzoak diran gizonak.
Erramonatxun kantu ederra,
baita txakolin gozonak
izan dirade zu goraltzeko
tresnarikan erosonak.

- 4/ Ezkongaietan bidexiortzat
nik arturikan trenbide,
arritza artan zapatak guztiz
apurtu bere al dire.
Maitemindurik dagon pertsonak
onarpen klase guzire,
itxutasunez jausi giñean
zoragarritzko neurrire.
- 5/ Denbora ori pasa ondoren
konsagratuaz ezkontza,
lasaitu daiten taupada asko
emoten egon biotza.
Egia esan, andra zintzoa,
maitagarri ta on utsa,
emon deustazu beti-betiko
zoragarritzko bizitza.
- 6/ Besarkatu ta titi emonik
lo amak aurra altzoan,
beste ainbeste maite zaitu zu
Lino Ayestak bertsoan.
Ezkondu eta bost urte pasa
nik or ain era gozoan,
zuregandikan partitutzean
tristetu nintzan osoan.
- 7/ Gure fruitua alaba eder bat,
orra Jaunaren grazia,
gutxi ez dala zuregandikan
nik lortu neban guzia.
Au niretzako asko da eta
asetu jat gutizia,
goraltzen zaitut zugaz naz eta
ain zoriontsu bizia.

8/ Agurtuz orain, ama lur maite
ta emaztearen sorteri,
zure trukean emon leitekez
toki askotan bost erri.
Ezkontza bada bikotearen
lotura edo buztarri,
zuregandikan artu nebana
niretzat oso pozgarri(1).

(1) Irugarren bertsoan Erramonatxuren kanta aitatu da. Kanta onen letra onelan zan:

*Levántate, Ramonatxu,
que el vaca en el cuadro está,
y si no le das la pienso,
de flaco errebentará.*

**BASAURIKO ARIZKO ELEIZEA
TA AMA BIRJIÑAREN BERTSOAK
ZORTZIKO ANDI TA TXIKIETAN**

- 1/ Parkeske nator Jesusen Ama
orbain gabea zarena,
bertsoratuak izan daitez
zure eleiz ta izena.
Ondo dakizu aldeko eta
adoratzaille nazena,
zure bitartez lortu nai neuke
zerurantz bide zuzena.

- 2/ Zure garaian bazan
Jesus premiazko,
gaur bere bagerade
pekatari asko.
Laguntza eske gaude
gizon ta andrazko,
bitarteko zeraden
Ama egiazko.

- 3/ Jaunaren etxe santu barri bat
Aritz Basaurin egiña,
izendaturik bertako patro
Edurretako Birjiña.
Desegokia len genduana
gaurko usuan, jakiña,
obakuntzara gauzak eroan
bear doguz alegiña.

- 4/ Edurretako Amagaz
Karmen ta Maria,
izen asko baiña bat
Jainkozko saria.
Mundutikan zerura
zubi gidaria,
zeureak dozuz lurra,
itxaso ta airia.
- 5/ Milla bedratzireun da larogei
ta amargarren martxuan,
oitabostean inauguratze,
jentea etorri moltsuan.
Jauna artzeko formak faltatu
iñok ez uste moduan,
pentsa zazue zenbat eleiztar
alkartu giñan orduan.
- 6/ Aitak erregalia
eukan emoteko,
Jaungoiko-Semearen
ama izateko.
Adanen ondokoen
loidura gabeko,
sortzez garbi-garbia
Jesus ekarteko.
- 7/ Gauza bakoitzak merezi badau
bere izenez deitzia,
Edurretako eleiz berria
ikusgarrizko bitxia.
Asieratik ez izan arren
guztion oneretxia,
eleiz-gizon ta etxegin orreik
lortu esamesak kentzia.

8/ Bedeinka gaitzuz orain,
Erregin ta Ama,
enplega dagiguzan
biri eta zama,
adoratzen kantuz
Jaunaren izena,
lenbailen osatzeko
gaixo dagoena.

ELEIZ-TXORIAK NEGAR

- 1/ Broma aspergarriai
emonez zoria,
Amurrion Gabonzar
artako istoria.
Gau ozkarbi egoan,
zeruko loria,
goi-balkoi batean ni
obserbadoria.

- 2/ Milla beatzireun da
larogetamarra,
gabeko amabietan
amaitu urte zarra.
Bolanderak estali
kanpaien indarra,
gerra bateri orrek
emon deutso parra.

- 3/ Erriak zabaleran
zugaitz asko dituz,
eleiz-txoriak aiek
lo ta gordelekuz.
Tiro aien bitartez
danak ikaratuz,
berealaldetu
trebekuntza artuz.

- 4/ Emetikan uxatu,
andikan bere bai,
gorde-galduan aiek
ez eben ibil nai.
Diruaren balioz
bolanderak non-nai,
txori batzuk il eta
besteak an deslai.
- 5/ Bolanderak ikusiz
txispatuz gorantza,
iges egin gura ta
ez jakin norantza.
Estualdi orretan
etxe barrurantz
sartu jatan talde bat
salbaziorantz.
- 6/ Nai gabe gerta nintzan
zine ikustera,
baita itzeldu bere
iñok ez usterera.
Bolanderak jaurtita
bestetik gurera,
lertzen etorri gero
nire ankartera.
- 7/ Niri prakak apurtu,
txori koitauak il,
pozez andra ta gizon
eta neska-mutil.
Urtebarrian ola
bear bada ibil,
pertsonek portaera
geratzen da saskil.

- 8/ Bakez dauden txoriak
lotatik atera,
biotz gogorak tiroz
gerra emotera.
Urte bat amaitu da,
beste bat atera,
noraiño ta zer geran
erakutsitera.
- 9/ Ekolojista dira
or jente aurrean,
egia zapaldu ta
sartuz guzurrean.
Lotzen ez badirade
kordel laburrean,
pizti ta egazti gabe
gerade lurrean.
- 10/ Giza-eskubideak
danontzat bardiñak,
guztion onerako
dirade egiñak.
Zuzentasun bideak
daukoguz jakiñak,
mesedez kunplitutzen
egin alegiñak.
- 11/ Umeen mantengarri
amaren erroa,
txorien bizitetxe
zugaitz ta berroa.
Zer jan gitxi badauko
lotzen da merroa,
trokaraiño jaustea
urrengo lerroa.

12/ Jaiak ondo egin baiña
txarto ez dau balio,
apurturik uzteko
abi ta arrio.
Ez dozuen ezkerro
oien amorio,
eleiz-txoriak negar
zuri, Amurrio.

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Zeberioko erriari	13
Uriondoko auzoa	17
Alarguna eta mutilzar koxoa	22
Oroipenak	26
Upoko basoeliza	30
Txakur ta katuaren bertsoak	34
Bakearen arbola	38
Pello eta Pilar	40
San Antonio Urkiolakoa	45
Ardozalearen bertsoak	49
Ikazgin enamoratua	53
Lelengo komunioa	57
Jesukristoren garizuma	59
Gizonen garizuma	63
Droga eta sida	67
Langabezia	73
Santa Ageda eskean	77
Justizia-eske	84
Euskadiko agintariak	88
Euskadi eta euskera	91
Otan bai, Otan ez	95
Irugarren korrikari	98
Zartzaroa	100
Andrekari bati	102
Damututako bekataria	105
Josu Artetxe, nire loba zanari	108
Azeriaren tranpak	111
Diruaren ezbardintasunak	115
Aita Lino Akesolo zanari	119

Gizon eta andreen trikimailluak	122
Zar eta gazteen adi eziñak, erriak azken erabagia emonik	126
Aita Patxiri	130
Paradisuko bertsoak edo diskordiako sagarra	133
Arrankudiagako erriari	136
Basauriko Arizko eleiza ta Ama Birjiñaren bertsoak zortziko andi ta txikietan	139
Eleiz-txoriak negar	142

ORAINDAIÑOKO LIBURUAK

117'garrenetik aurrera.

- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125: *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak. (*Aitua*).
135: *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*)
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*).
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*).
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*).
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*).
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*).
149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*).


- 150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*).
151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*).
152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.
154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.
155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.
156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157: *Elkarlanean*: Lexoti bertsolaria.
158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)
159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)
163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.
165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.
166: *M. Manterola*: Lore apal bat.
167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169: *Basarri*: Kezka-giroan.
170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.
172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173: *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan, I.
175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan, II.
176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan, I.
181: *Ataño*: Zigorpean.
182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan, II.
184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.
185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.
186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.
187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
189: *Ataño*: Eltzaorra.
190: *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.
191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.
192: *Ataño*: Odol-kutsua.
193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.

- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.
195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.
196: *Ataño*: Etorkizuna.
197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.
198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzape-
nak.
199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.
200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.
201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.
202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.
203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.
204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.
205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.
206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.
207: *Ataño*: Aztia usnari.
208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.
209: *B. Barandiaran*: Zartu gabe ezin bizi.
210: *Beñat Karrika*: Armendaritze haur begiez.
211: *Basilio Pujana*: Deabruak ostutako urteak.
212: *A. Zavala*: Frantzesteko bertsoak, I.
213: *A. Zavala*: Frantzesteko bertsoak, II.
214: *J. M. Lertxundi*: Igaroari begira.
215: *Ataño*: Azkeneko saskigillea.
216: *J. M. Etxezarreta «Izazpi»*: Hasperen ttantta bihoziak.
217: *L. Ayesta*: Gure izkuntzaren mugatik.



1051052

G-128/75



AUSPOA
LIBURUTEGIA